

ttipi ttapa

2004ko uztailaren 29a • XXIV. urtea



Ander Rodriguez
igerilari bikaina

28

Aste hondar honetan Bartzelonan jokatu den Espainiako igeriketa txapelketan parte hartu du 16 urteko beratarrak. Aitzinetik, Gipuzkoa eta Euskadikoan aritu zen.



Baztandarren
Biltzarra

23

Hogeiki orga karrikaratu ziren Baztandarren Biltzarrean. Tiburtzio Arraztoa, Txuma Prim eta Juanjo Atxa omendu zituzten, pilotaren alde egindako lanarengatik.



03

Etxebizitza
Eskubide
edo amets?





ARGAZKUA: AYL

Besta zoriontsuak denei

Beti zuekin

NAFARROAKO  KUTXA

Zuen kutxa

MUEBLES A METS

larunbat
arratsaldetan
irekia


4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERATik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



- *Sukaldeak*
- *Egongelak*
- *Logelak*
- *Bainugelak*



**Zatoz eta
ikusi gure
aukera
zabala**



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Iruña edo Donostiarekin konparatuz gero, etxebizitzaren prezioa merkea da hemen, baina halere, gazteek nekez erosten ahal dute etxebizitza.

ETXEBIZITZAREN AFERA ESKUALDEAN

Prezio garestiak eta lurrik eza dira etxebizitza lortzeko traba nagusiak

Arazo larria da azken boladan etxebizitzarena. Gazteak arrenkura dira gaur den egunean irabazten duten soldatarekin nekez erosten ahal dutelako etxebizitzarik eta errentan hartzeko ere hagitz garesti daudelako. Azkeneko lau-bortz urteotan prezioetan igoera ikaragarria ikusten da, batere normala ez dena. Erosterakoan %100 baino gehiago igo dira eta errentak ere izugarri garestitu dira. Dagoen eskaintzak ez du asetzen etxebizitza berrien eskaria. Egoera hau orokorra da, herri guztietan gertatzen dena, eta horren erretratoa egiteko eskualdeko zenbait alkate eta hirigintza zinegotzirekin bildu gara. Argi eta garbi dago jendearen kezka handia dela. Momentuko errealitatearen argazkia ez da batere polita, eta udalen aldetik egiten diren ahaleginak ez dira gazteen eskaria asetzeko modukoak. Arazoaren zergatia, udal agintarien iritziz, babes ofizialeko etxebizitza berriak egiteko lur faltan dago.

Joseba OLAGARAI

Etxebizitza libreen prezioa hagitz garestia da gazte batendako eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurrik ez dute Udalek. Gauza batengatik edo bertzearengatik zaila egiten zaie gazteei etxebizitza erostea, baita errentan hartzea ere. Bakarka ezinezkoa da, bikotearekin ere nahiko lan eta batzuk lagunartean hartu behar izaten dituzte etxebizitzak, ikasle garaia gogoratu. Ramon Etxebeste, **Doneztebe**ko alkateak aipatu digunez, «*etxeen prezioak garestiak dira, baina orain pisu aunitz egiten ari dira hemen eta araberan, Donostia edo Iruñarekin konparatuz, merkeak dira oraindik. Halere, gazteendako nahiko garestiak dira. Etxeak egiteko lurra behar da eta guk lur aunitz ez dugu.*»

Udaletxetik bada proiektu bat babes ofizialeko hamabi pisu egiteko. Oraindik ez da hasi, baina asmoa hor dago». **Berako** Udalean hirigintza plana onartu zen eta Nafarroako Gobernuak berriki onartu du. Orain, etxebizitza kolektiboak egin ahal izanen dituzte, Jon Abril hirigintza zinegotziak aipatu digunez: «Behin plana onartuta estrategia bat planteatu beharko da, ikusi lurjabeek zer prestutasuna duten etxeak egiteko edo lurra saltzeko eta bertzenaz legeak ematen dizkigun makuluak erabili. Orain arte babes ofizialera bideratutako etxebizitzaren kopurua guttienez %15ekoa baldin bazen, hemendik aitzinera %25a izanen da babes ofizialeko etxebizitza eta bertze %25a tasatua edo paktatua deitzen dena. Horrekin etxebizitzaren prezioa jautsi nahi da edo bederen merkeago paratu zenbait jenderen eskura egoteko. Horrek lagunduko du lehendabiziko etxebizitzaren bila dabilen jendeari edo alokairuan dagoena eta etxea erosi nahi duenari aukera emanen dio sarbide errexagoa izateko. Gero, gure kezketako bat zen alokairuko etxebizitza eta horretan uste baino arazo edo traba gehiagorekin gaude. Batetik, etxebizitza eskaintzeko udalak erosi beharko luke. Horrek inbertsio haundia ekarriko luke, lehendabiziko pisua erosi, gero kontrolerako

nahiko mekanismo zailak ditu jarraitzea egiteko eta horrek denak egoera zailtzen du, udalaren egungo egoera ekonomikoak ez du inongo aukerarik ematen horrelako inbertsio erraldoietan sartzeko».

BIZTANLE KOPURUA IGOZTEKO EDO MANTENTZEKO SAIAKERAK

Jakina da azken urteotan herri ttipietatik handietarako edo hiriburuetarako emigrazioa ikusi dela gure herrietan. Lana eta zerbitzuen bila doaz gazteak eta joera hori gelditzeko eta, ahal dela, jendea herrira itzultzeko asmoa izaten dute udalek proiektu ezberdinekin. **Lesakan**, adibidez, 2.700 biztanle eskas gaude gaur egun eta garai bateko 3.400 ingurura ailegatzeko da udalaren xedea eta horretarako 400 etxebizitza baino gehiago eginen dira, alkateak jakinarazi digunez: «Babes ofizialeko etxebizitzak egiten hasteko lizentzia emana da asilo inguruan. Bertze aldetik, Landazelaian lurren erosketa egiten ari dira, hemendik urte bete edo bi urtera proiektua egin eta sei-zortzi urtean, 250 bat etxebizitza eginen ziren. Hori pisuei dagokienez. Badira bertze proiektu batzuk familia bakarreko edo bi familiareko etxebizitzak egiteko, bat Alkaiagan 40 etxebizitzarekin, bertzea Izotzaldean 22 etxebizitzarekin. Alkaiagan,

pisuak ere egin nahi dira, tunelaren eta Estazio etxearen ondoan, hor atezaten dira 96 bat pisu, erdiak babes ofizialekoak eta bertze erdiak libre. Horiek martxan daudezin proiektuak dira». **Beran**, Agerra auzotik herrirako eramuan etxeak egiteko asmoa dago: «Hirigintza planaren arabera—dio Jon Abrilak— Babes ofizialeko 80 etxebizitza dira, pisu libreak bertze hainbertze, baina badira familia bakarreko edo bi familiareko etxebizitzak ere. Herrian badira bertze eremu batzuk etxebizitza tipologia ezberdinak eraikitzen ahal direnak. Hori plano batean marrazten da non egiten ahal den, gero estudio zehatzagoekin zer motako etxeak eta zenbat egiten ahal diren erabakiko da. Planak Berako egoera bat irudikatzen du, non eta nola egiten ahal diren etxebizitzak. Horrek ez du erran nahi dena garatuko denik, are guttiago dena aldi berean eginen denik. Plan horren arabera hurrengo urteetan Berak hazkunde handia edukiko luke eta horrek ondorioak edukiko ditu populazio igoeran ere. Bistakoa da eskualdeko herririk haundiena dela, errepidea hobetzera doaiela eta Irundik komunikazio sare ona izanen dela eta horrek estrategikoki leku garrantzitsuan paratzen ahal duela Bera. Horren baitan egonen da zenbat etxebizitza egin».

EGOERA HOBETZEKO ITXAROPENIK EZ

Han eta hemen babes ofizialeko etxebizitzak, paktatuak edo libreak egiten ari dira eta egiteko asmoak badaude. Dena den, etxebizitzaren egoera orokorra aunitz hobetuko den itxaropen haundirik ez dute udal agintariek. Jon Abril beratarak dioenez, «nik ez dut egoera aunitz hobetuko den itxaropen haundirik. Nahi nuke horrelako neurri zehatz batzuen bidez, etxebizitza sozialak bultzatuz eta, zenbait jenderentzat errexagoa izatea etxe baterako sarbidea, baina azkeneko aldi aditzen dena, etxeen prezio izugarri jautsiko dela eta gisakoak, ez dut sinisten. Gainera, legeak berak ez du hori aunitz errazten. Azkenean, lurrraren espekulazio ikaragarria dago, eta horrek eragina du pisuaren prezioan. Herri ttipietatik igual ez hain-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Etxebizitzaren prezioa jautsiko dela diote batzuk, baina oraindik ez da horrelakorik somatzen inguru honetan.

bertze, baina hirietan etxebizitzaren kontura zenbait lur jabek eta enpresek ne-

gozio ikaragarria egin dute eta horrek ondorioa izan ditu herritar guziengan etxe-

bizitzaren prezioan. Itxaropentsu izateko arrazoi haundirik ez dut ikusten».

J.F. MITXELENA Lesakako alkatea

Nola ikusten duzue etxebizitzaren arazoa?

Behar handia dagoela ikusten dugu. Badira urte batzuk saiatzen ari garela babes ofizialeko etxebizitzak egiten. Azkeneko duela urte bat terdi eman ziren, gasolindegia eta Villa Isabel artekoak. 43 etxebizitza egin ziren. Horiek saldu ondotik ere jende kopuru handia etxebizitzarik gabe gelditu zela ikusirik, udaletxetik joan den urteko abuztu eta irailean inkesta bat egin genuen, Lesakan zenbaterainoko beharra zegoen ikusteko. Inkestaren arabera 90 eskaera inguru zeuden eta aitzinera segituz bertze proiektu bat dugu, dagoeneko adjudikatu eta berehala hasiko dena obretan. Lehengo erresidentzia zaharrean, Osasun etxearen parean eginen da.

Zer egiten ahal du Udalak arazo hori moldatzeko?

Jendea norbaitekin harremana izaten hasten denean eta gurasoen etxetik ateratzeko gogoia hasten denean, etxebizitzaren kezka sortzen da. Bitartean gazteek ez dute etxebizitza behar handirik somatzen. Lesakan urte aunitz izan zen pisurik egin gabe eta etxebizitza behar handia zen. Baina hemen-dik aitzinera, datozen zortzi-hamar urtetan hori betetzeko ez dugu arazorik izanen dauzkagun proiektuekin. Lesakako biztanle kopurua jausten aritu da azkeneko urteetan eta berriz ere, garai bateko 3.400-3.500 biztanleak berriro beharko lirakeela uste dugu. Hori lortzen saiatuko gara, ikusirik inguruko herrietan industria mugitzen ari dela, errepideak moldatzen ari direla, Gipuzkoatik hurbil gaudela...

“Eskuartean dauzkagun proiektuekin Lesakak garai batean zituen 3.500 bizilagunak berrituko duela uste dugu”

Jon ABRIL Berako Hirigintza zinegotzia

Nola ikusten duzue etxebizitzaren arazoa?

Arazoa nahiko larria da momentu honetan Beran. Alde batetik etxebizitza gutti dagoelako, bai alokairuan, bai salmentan eta dagoena hagitz-hagitz garestia delako. Azkeneko lau-bortz urteetan izan duen igoera izugarria izan da, batere normala ez dena, %100etik goitikoa erosteko etxebizitzan eta alokairuak ere izugarri garestitu dira. Horren aitzinean zerbait landu nahi genuke baina bi oztopo nagusi topatu ditugu: batetik, Berako hirigintza plan berria indarrean jarri aitzinetik, pisuak edo etxebizitza kolektiboak deitzen direnak erabat geldituak zeuden. Orain, Nafarroako Gobernuak onartu egin du eta Bolelinean agertzen denean, plan berria indarrean sartuko da eta egoera aldatuko da. Bertze alde batetik, udalak ez du lurrik herrian bertan eta hori muga handia da etxebizitza politika bat garatu ahal izateko. Bi errealitate horiekin hirigintza planak ematen dituen aukerak baliatu beharko ditugu. Udalak hor badiu zenbait tresna, babes ofizialeko etxebizitzak edo publikoak batez ere bultzatzeko.

Zer egiten ahal du Udalak arazo hori moldatzeko?

Udalak ez du lurrik eta lurrik ez duzunean zaila da politika bat sustatzea. Lurra baldin bagenuen, promozio bat eskaini ahal izanen genuke. Ez denez gure kasua, legeak uzten dizkigun bideetatik aukera ezberdinak daude, lurra urbanizatuz eta jabeei nolabait etxeak eginaraziz. Babes Ofizialeko etxebizitzak eginen diren lekuan bertzelako etxeak ere joanen dira.

“Berako Udalak ez du lurrik herrigunean eta lurrik ez duzunean zaila da etxebizitza politika bat sustatzea”

Jose M^a MAIA Etxalarko hirig. zinegotzia

Nola ikusten duzue etxebizitzaren arazoa?

Etxebizitzarena arazo handia da, batez ere dauzkaten prezioengatik. Bizia nola dagoen eta hilabeteen irabazten den diruarekin soluzio zailako arazoa da. Gaur egun ikusi da etxebizitza zer prezioetara joan den eta gazte batek duen irabaziarekin etxe baten jabe izatea zail da. Herri honetan eta orokorrean nahiko arazo da hori. Prezioek gorakada ikaragarria izan dute. Etxalarren ere ageri da egoera hori. Gazteen aldetik eskaera eta nahia bada, dudarik gabe, baina gaur egun ez dugu beraiek behar duten etxebizitza hori eskaintzerik. Etxebizitza batzuk egiten ari dira, baina adosatua edo bi familiako horietarik dira eta horiek prezio altuan ateratzen dira. Gazte batendako ezinezkoa da horiek eskuratzzea.

Zer egiten ahal du Udalak arazo hori moldatzeko?

Udalak lehenbiziko egiten ahal duen pausua bere planeamenduan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurra kalifikatzea da. Hortik sortzen dira gero babes ofizialeko etxebizitzak, lur horiek badiuztelako baldintza batzuk, prezio mugatuak... hori da udalak egiten ahal duena. Orain 12 etxebizitza egiteko proiektua dugu eta laburki hasiko dira. Aspaldixko egiten hastekoak ziren, proiektua hor dago duela hiru urtetik, baina afera batengatik edo bertzearengatik gibelatu da. Enpresa batek egitekoa zuen, baina desegin zen eta orain Lesakako Etxartek hartu du proiektua eskutan, lurra erosi eta abudu hasiko da lanean.

“Gazte batendako ezinezkoa da orain eskaintzen diren familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak erostea”

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZAILEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. **PRESIDENTEA (Président):** Pello Apeztekoa. **KUDEATZAILEA (Gérant):** Joxemanuel Irigoien. **ZUZENDARIA (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **PUBLIZITATEA (Publicité):** Kulturkari, SLU **ADMINISTRAZIOA (Administration):** Amaia Goia. **BERRIEMAILAK (Collaborateurs):** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

INPRIMATEGIA (Imprimeur): Gertu. **ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetzeta sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Egia erran

Herria Aintzineraren izenean, Iban Maiak sinatutako idatziari erantzunez, talde honek Udalan aurkeztutako mozioari eman genion erantzuna publikoki agertzeko beharrea aurkitu gara, erantzuna eman ez izana leporatzen digutela.

Maiatzaren 13an (1402. sarrera Erregistro Orokorrean), jaso zen akordio proposamen bat "apartheid politikoa"ren kontrakoa, Herria Aintzineraren izenean. Horri buruz, Udalan ordezkaritza dugun taldeok ekainaren 11an ospatutako osoko bilkuran erantzun bat eman genion, eta proposamen alternatibo bat aurkeztu genuen Herria Aintzineraren bertan zego-larik.

"EAJ-PNV / EA
ETA ONIN TALDEEK
ADOSTUTAKO
MOZIOA.

SARRERA:

1- Jakitun izanik aniztasuna gure gizartearen ezaugarrikerik aberasgarrirenetako bat dela, udal taldeek publikoki eskatzen dugu errespetatu dadila aukera politikoa guztiek beren ideiak adierazteko duten eskubidea.

2 - HERRIA AINTZINERAREN parte hartzea galarazteko egindako saiakerak salatu nahi ditugu, kalte larria eragiten baitiete berdintasun, aniztasun eta sufragio unibertsalaren printzipio demokratikoei. Gure ustez, politikan parte hartzeko eskubidea bizikidetzara arazoak kudeatzeko lehentasunezko baliabide demokratikoa da, eta ezin onar dez-

kegu eskubide hori murriztea.

3- Mozio hau izenpetzen dugunon ustez, bakea eraikitzeko beharrezkoak dira gizartearen errotuta dauden sentsibilitate politikoa guztiak. Illegalizazioak berarekin dakar normalizatorako eta bakerako beharrezko den sektore politikoa kanpoan uztea eta horrek elkarbizitza urratu eta bakerako bideak bilatzen lagundu partez, herritarren arteko gatazka eta sumindura sustatzen ditu.

4- Udal honek legeak dioena bete behar du, eta gainera Herria Aintzinerak planteatzen duen 182. Artikuluaren formula ezin da eskatzen duten bezala aplikatu, aipatzen den zerrenda horietan beraien izenak ez daudelako.

5- Beste aldetik, udal funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea duzuela badakizue. Etorztea zuen esku dago.

HORREGATIK
AURKEZTUTAKO
MOZIOA HAU DA
ONARTU GENUENA

1- Udal honek, tris-turaz gogoratu eta ozenki salatzen du, duela urtebete Madrilera gure herritarren eta herritarren eskubide politikoa urratzeko egindako saiakera. Zoritxarrez, ez lehe-na eta azkenekoa ere izanen ez dena.

2- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politikoa guztien subjeto dela aldarrikatzen du. Era berean, Euskal Herritar orori dagokigu gure herritarren etorkizuna erabakitzea, eta hori lortzeko eta benetako demokrazia bat lortzeko alderdi politikoa, sindikatu,

gizarte eragile eta instituzio guztiei elkarriketa eta konponketarako konpromisoa eskatzen die.

Argi gelditzen da erantzun bat eman genuela, beraien gustokoa ez bada ere, baina gure erantzuna da. Ezin dugu gure gain hartu besteen erabakiak eta jokabideen erantzunleak gara eta eztabaida hau bertan utzi behar dugula argi utzi nahi dugu. Lesaka denon inplikazioa eta laguntza behar du. Herriaren alde lana egin nahi baduzue badakizue nun gauden eta zer egin behar duzun.

Lesakako EAJ/PNV-
EA eta ONIN taldeak

rritar gehiagok parte hartu bestak prestatzen, orduan eta besta hobeak izaten direla. Programako aktibitateetan agertu den jende guztiak horixe erakusten du.

Gorabehera batzuk ere izan dira, portada jendeartean hautatzeari egindako boikota, adibidez. Euren botoarekin 123 pertsonen hautatu nahi izan zuten bestetako portada, baina azkenean, botoemale baino boto gehiago zeudenez, hautaketa baliorik gabe utzi behar izan genuen. Hala ere, saiakera ez da alferrik izan, eta heldu den urtean berriz ere parte hartzeko gonbitea egin nahi dizuegu hemendik. Espero dugu heldu den urteko emaitza ona izatea.

Negatiboa izan da ere Joseina Etxeberriaren Diskofestarekin gertatu dena, jende multzo batek ez baitu onartu Besta Batzordearen erabakia. Batzordeak herritarren partehartzea hobea eta handiagoa izateko antolatzen dira, eta lantaldeetan hartzen diren erabakiak errespetatu beharrezkoak dira, ados egon edo ez. Funtsezkoa da lantaldean hartutako erabakiak errespetatzea, norbera errespetuz tratatua izatea nahi baldin bada.

Besta Batzordean parte hartzera animatu nahi zaituztegu, gauza jakina baita jende gehiagoren partaidetzarekin errazagoa izanen dela gusto eta gogo desberdinekin asmatzea.

Esker mila eta nahi duzuen arte.

Lesakako
Kultur Batzordea

Sanferminak

Besten balorazioa positiboa egin bidenabar, eskerrak eman nahi dizkiogu antolakuntzan aritu den Besta Batzordeari eta hainbat lanetan laguntza eskuzabala eman duten herritar anonomo guztiei.

Pentsatzen genuen bezala, aurten bistan gelditu da adin eta sektore guztietako zenbat eta he-

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2004-07-17

«Bestelako mundu bat posible dela uste dut nik, eta liburuan antzeman daiteke hori. Ez da liburu panfletarioa, baina interesatzen zaidan gai bat da. Antropologia ikasketak egiten hasiko naiz orain. Sistema honek xurgatu egiten gaitu, baina oraindik ere pertsona garela sentiarazten diguten gauzak baditugu. Egiten dugun lana egiten dugula ere, espresibideak hor daude».

Hasier LARRETXE
Arraiozko idazlea
Berria 2004-07-17

«Pilotari bezala egiten joan naizela uste dut, Lanbide guzietan ikasi egiten da denbora pasatzen den neurrian eta nik ere pilota guttiago galtzen ikasi dut. Beharbada orain segurtasun haundiagoa ematen dut».
«Enpresen artean ezberdintasunak badira, baina azkenean guzietan kantxara irabaztera eta balio duzuna erakustera atera behar duzu».

Iñaki OTXANDORENA
Oronoz-Mugairiko pilotaria
GARA 2004-07-21

• 11 GALDERA LABUR •

Amets bat?

Ikasten eta igeriketan segitzea eta biak ahalik eta hobekien egitea.

Hondartza edo igerilekua?

Igerilekua urte guztian eta hondartza neguan, entrenatzeaz bukatzean.

Uda edo negua?

Biak gustatzen zaizkit, baina udako eguraldia nahiago dut.

Zer dute Berako bestek bertze edozein bestek ez dutenik?

Nere herriko bestak direla eta aunitz gustatzen zaitgaueko giroa. Egunez ere bai, eh!

San Estebaneri zer eskatzen diozu aurten?

Eguraldi ona egi-

tea, denek ongi pasatzea eta jendea etortzea.

Kukaña azpiko putzuan igeri egiteko asmorik bai?

Urtero ateratzen naiz eta beti botatzen naiz kukañatik. Aurten ere, noski

Egun guzia uretan ematen duen mutil batek besta egiteko ere ura edan du, ez?

Ura bai, baina zerbait gehiago ere bai: kas limon eta horrela.

Ostatuan jende artean igeri gustura ibiltzen zaren horietakoa zara?

Bai, bai... hori ere gustatzen zait, noski.

Besta hauetan Berako igerilekura egunez igeri egitera edo arratsez neskarekin?

Egunez igeri egitera ez naiz etorriko, denboraldia bukatu dut eta. Neskarekin ez dakit honaino ailegatuko naizen (irriak).

Besta hauetan dantza Gure Txokoa dantza taldearekin edo arratsean bakarka?

Lehenbiziko festibalean Gure Txokoarekin eta gaez bakarka edo lagunekin, posible den bezala.

Igerilekuak udarako dira?

Bertzeentzat igual bai, netzat urte osorako dira.



Ander RODRIGUEZ KORTA
Berako igerilaria

BERAKO ETXEO EDANTEGIA
CASA DE ABAIA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

«**USOA**»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

© 948 631462
Altzate 1 • BERA
Xirail

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatura
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

ttipi ttapa
☎ 948 635458
Faxa 948 635457
ttipi-ttapa@ttipi.net

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



ADINEKOAK

Aralar eta Costa Bravara bidaiak prestatu ditu Arkupeak elkarteak

Abuztuaren 5ean San Migel bisitatu eta Gorraizen bazkalduko dute

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak abuztuaren 5ean Aralarko San Migel basilazara bidaia antolatu du. Izen ematea uztailaren 14tik 24ra egin behar zen eta horretarako 25 euro ordaindu behar ziren. Autobusen irteera ordutegia izena eman ondotik jakinaraziko da. 10:45ak aldera ailegatuko dira autobusak Aralarrera. 11:00etan Meza Saindua izanen da eta gero norberak nahi duena egiteko asti pixko bat izanen da. 13:00etan aterako dira autobusak Gorraiz aldera, bertan 14:30etan izanen baitute bazkaria honako menuarekin: terrinak eta txigorkien dastatzea, Gorraiz fritu ezberdinak, baratzeko barazki-menestra, txangurro gainerrea, arkume errea bere saltsarekin eta idiazabal saltsa, ostopila bainila kremarekin, magurdi sorbetea eta txokolata karraskatsua. Edateko Señorío de Sarria gorria eta beltza, kaba, ura, kafea eta likoreak izanen dituzte. 17:00etatik 20:00etara dantzaldia izanen dute leku berean, etxera itzuli aitzin.



Aralarrera bisita egingen dute jubilatuek abuztuaren 5ean.

Bertze aldetik, irailaren 15etik 24ra Kataluniako Kosta Bravara, L'Estartit ingurura bidaia egingen dute Arkupeakeko erretiratuek.

Irailaren 15ean, goizeko 6:30etatik abiatuko dira irunetik, bidean bazkaldu eta L'Estartiteko Panorama hiru izarreko hotelera ailegatuiko dira. Hotela hondartzatik 30 metrora dago eta pizsina klimatizatu dauka. L'Estartiten dauden bitartean zenbait txango aukeratu beharko dituzte, izan ere Cap Roig-Palls-Monelilliseko lorategi botanikoa, Erdi Aroko herriak, An-

puriaseko hondakin arkeologikoak, Lescalako antxoa dastatzea, Palau Satozeko baserriko tresna zaharren museoa, La Bisbaleko zeramika, Figereseko Dali Museoa, Roses, Anpuria Brava, Gironako auzo zaharra, Kadakes, Bañolas, Palamos, Playa de Aron erosketak, L'Empordako hezetokien parke naturala, Ullastreteko herriska iberikoa, gaztelua, Oloteko Garotsako sumendi eremua edo Medes irlen barna itsasontzian itzulia egiteko modua izanen baita. Behar bada Bartzelonako Foru-

mera ere joanen dira, baina ez da segurua.

Itzuleran, Pilarika agurtu bidenabarkoan Zaragozan bazkalduko dute.

Bidaiaren prezioan, autobusa eta lekuak ikusteko egingen diren bidaien berenduak sartzen dira. Sarrerak eta Medes irltetako itsas ibilaldia, ordea, norberak ordaindu beharko ditu. Honela, hotelean pentzio osoa logela bikotzean 420 euro gostako da. Bakarkako logela izanez gero, 525 euro gostako da. Izen ematea uztailaren 23an egin behar zuten.

LANA

Ekainean 488 langabetu zeuden Doneztebeko INEMen

ttipi-ttapa

Ekaina akabailan 488 lagunek emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan, maiatzean baino 17 guttiagok. Langabetu horietatik 289 emakumeak ziren eta 199 gizasemeak, beraz hilabeteko 17 lanpostuak gizonentzat izan dira, maiatzean 289 emakume eta 216 gizon baitzeuden lanik gabe. Honela, joan den hilabetean %3,4 jaitsi zen langabetu kopurua osotara eta gizonen kasuan %7,9. Urtea hasi zeneztik 132 pertsona guttiago daude langabezian eskualdean, izan ere urtarrilean 620 langabetu zeuden (258 gizon eta 362 emakume). Lan merkatua %21,30ean hobetu dela adierazten du datu horrek. Eskualdeko langabezia kopuru haundiena 2000ko otsailean eman zen, 695 langabetearekin eta tiki-kiena urte bereko ekainean, 471 langabetearekin.

bortzIRUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK
PLANOAK
FOTOKOPIAK
KOLoretan
ENKUAERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
PAPERTEGIA
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORILAK
Bera - Tlxoa: 948 630 735 - 607 406 781

ZJ
Zalain
jatebrea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
Zalain s/n • 701 749 43 29 47
Bera - Nafarroa

BERA

Futbito txapelketa antolatu du Gazte Asanbladak lehen aldiz

Imanol Zubieta «Fash» Memoriala izanen da

Amaia eta Ainhoa

Besten inguruan areto-futbol txapelketa antolatu zuen hainbat urtez Baietz peñak. Lan horretaz aspertu eta utzi egin zuen duela bi urteko txapelketaren ondotik. Beraz, joan den urtean ez zen txapelketarik izan, baina aurten Gazte Asanbladak lekukoa hartu eta futbito txapelketa antolatu du. Auto istripuan hil zen Imanol Zubieta «Fash» Memoriala izena hartu du txapelketa honek. Guztira hamar taldek eman dute izena eta jadanik hasiak dira partiduetan jokatzeko. Bi taldetan multzotuta dira ekipoak eta ligaxka moduan aritu dira hilaren 28a bitartean. Multzo bakoi-tzetik lehenengo bi sailkatuek uztailaren 28an finalerdiak jokatu dituzte, hurrengo egunean final nagusia izanen delarik.

Akabera ona emateko, partaide guztiek eta, nahi duen bertze edozeinek, Zubiondo jate-txean antolatu duten afarian parte hartuko dute eta bertan eginen da sari banaketa. Antolatzaileek ohiko lekuetan salgai jarri dituzte afarirako txartelak 12 eurotan.



Ane Bergara Espainiako selekzioarekin

Ane Bergara gazte beratarra Europako emakumezkoen «sub-19» hirugarren txapelketarako deitua izan zen ekainaren bukaeran. Prestakuntza fasea VIlalongoan egin du Espainiako selekzioarekin uztailaren 5etik 25era bitartean eta orain, abuztuaren 9a arte Eurocopa jokatu du. Uztailaren 25ean Madrilen elkartu zen ekipoarekin. Ane orain Helsinkin (Finlandia) dago Europako azken fasea jokatzeko eta Finlandia, Alemania eta Suitzako nesken kontraritu beharko da Espainiako selekzioarekin. Estatuko selekzioa hagitza talde onarekin doa Finlandiara (30 gol sartu dituzte sailkapeneko sei partidutan) eta emaitza politak lortzeko asmoarekin doa. Ane Bergarak kontatuko digu etxera bueltatzen denean.

FLASH

Erakusketa

Abuztuaren 1a arte zabalik izanen da Luis de Vera margolariaren erakusketa. Astelehenetik larunbatera ikus ahal izanen da Kultur Etxeko erakusketa gelan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igandean, aldiz, goizez bakarrik egonen da irekia, 10:00etatik 14:00etara.

Matxainetik ur-hartzea

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio departamentuak 27.537 euroko dirulaguntza eman dio Udalari, Matxain errekatik ur-hartzea egiteko. Aurrekontu osoa 41.565 eurokoa da eta gaur egungo ur-hartzea moldatuko da. Lan honekin, udan izaten diren ur-hornidura arazoak moldatuko dira uste du Helena Santesteban alkateak.

Besta aitzinetik ere ekitaldiak

Berez Sanesteban abuztuaren 2ko altxaferoarekin hasten badira ere, aitzineko asteburuan ere izanen da zer ikusi. Larunbatean, uztailaren 31n plater tiraketa eta Iparraldeko dantzak ikasteko aukera izanen da Patxi Perezekin. Arratsean Herriko Etxeko Plazan kontzertua eskainiko du Carlos Piñuela y su son taldeak. Igandean, haurrentzako puzgarriak igerilekuan eta 15:30etan 4x4 autoen ikuskitzuna antolatu da Postasen.

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

PINTURAS LEGUIA S.L.
Rafa
600 819 640
Eztegara 26, 2.C - BERA

GOYA
arropak • maindireak
Mantak • nordikoak
toallak • kortinak
Alfonbrak
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

LESAKA

Nazioarteko dantza jaialdi ikusgarria ikusgai izan zen uztailaren 24an

Bielorrusia, Grezia eta Behobiako taldeak aritu ziren, herrikoarekin batera

Aitor AROTZENA

Ez da Sanferminen ondoko hamabortzaldia berriak sortzeko —eta idazteko— tenorerik onena. Besten ondotik lozorroan sartzen dira herria eta herritarrak eta normalki igerilekuetara jo behar izaten da mugimendu eta berri bila. Dena den, aurten udal igerilekuan proposatutako igeriketa ikastarorik ez da eginen, jende guttik eman duelako izena. Beraz, norbere gisara igerian, saltoka edo eguzkia hartzen ari direnak bertzerik ez ditugu topatuko uda honetan. Ondoan, Mastegi futbol zelaian udako futbol campusetan ikusi ditugu gaztetxoak. Uztailan ohiko campusa izan da eta abuztuko bi astetan, 8tik 14ra eta 15etik 21era, lehen aldiz eginen den euskal campusekoak arituko dira.

Uztail honetan zerbait azpimarratzekotan, nazioartetik etorritako dantzarien saioak azpimarratu beharko genituzke. Sanferminen aitzineko aste hondarrean Galiza, Katalunia eta Eskoziatik etorritakoak ikusteko modua izan genuen eta joan den asteburuan, Bielorrusiako



UTZITAKO ARGAZKIAK

“Helidonaki” ume eta gazteen dantza tradizionalen taldea 1996ean sortu zuen Hungariako Greziar Elkarrekin, sustrai greziarrak dituzten umeei beren guraso eta aiton-amonen herrialdeko ohitura eta folklorea erakusteko. Chabarok taldea 1986an sortu zen Minsk Palacen.

Chabarok, Greziako Helidonaki, Behobiako Eraiki eta Lesakako Tan-

tirumairu dantza taldekoak izan ziren, jaialdi ikusgarrian. Lehen al-

diz izan dugu herrian horrelako jaialdia, baina ez al da azkenekoa izanen!

Tantirumairu ikastola eta Irain eskolako garbiketa lanak lehiaketara

Iraila arte atea itxiak izanen dituzte Irain eskolak eta Tantirumairu ikastolak, baina 2004-2005 ikasturtean bi ikastetxe horien instalazioak garbitzeko eta zabor bilketa egiteko kontratuak lehiaketara atera ditu Udalak.

Irain eskolako hartu nahi duenak abudo mugitu beharko du, uztailaren 30ean, 13:00-etan akautuko baita proposamenak aurkezteko epea. Aurrekontua 20.404 eurokoa da, BEZ barne. Adjudikatzeko era prozedura negoziatua izanen da, prentsan iragarri gabe.

Bertze aldetik, Tantirumairu ikastolaren garbiketa eta zabor bilketa lanak hartu nahi dituenak abuztuaren 9ko eguerdiko 13:00ak arteko epea izanen du proposamenak aurkezteko. Aurrekontua 9.724,22 eurokoa da. Bi kasuetan, lehiaketaren baldintzak interesdunen eskura daude, Herriko Etxeko idazkaritzan.

ANA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zifuri
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETERA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

400 jubilatutik goiti bildu ziren Etxalarren Aitatxi-amatxien Nazioarteko Egunean

Haurrentzako puzgarriak izanen dira herriko igerilekuan igande honetan

Joseba eta Nerea

Etxalar aukeratu zuen Arkupeak jubilatutik eta pentsionisten elkar-teak Aitatxi-Amatxien Nazioarteko Eguna ospatzeko. Horren aitzakian, eskualdetik eta inguruko bertze hainbat herritatik etorritako jubilatutak bildu ziren herrian. 12:30etako Meza rekin hasi zuten eguna. 14:00etan bazkaria izan zuten Etxalarko Bentan. Hala ere, bertan denak kabitzen ez zirela eta, 98 lagunek Etxalarko Herriko Ostatuan bazkaldu zuten. Bazkalondotik, aitatxi eta amatxi bakoitzari oparitxo bat eman zitzaion eta 17:00etatik 19:30ak arte dantzaldia izan zuten. Guztira 460 jubilatutak bildu ziren giro onak eta umoreak hutsik egin ez zuten egun honetan.

Nazioarteko dantzak

Urtero uztaila hondarrean egiten den bezala, aurten ere Bida-



ARTXIBOKOA

Udalekuen akabila

Ortziral honetan akabatuko dira bigarren aldiz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako Udaleku Irekiak. Amaia Agirre begiralearen eskutik hilabete osoan ibili dira herriko hainbat neska-mutiko goiz partean ekitaldi desberdinak egiten: kirolak, eskulanak, sukaldaritza, irteerak... asperetzeko modurik bederen ez dute izan uztail osoan luzatu diren Udalekuetan. Azkeneko eguna gosari eder batekin eta jostetan ospatuko dute. Bi begiraleak hagitz kontent daude udalekuek izandako martxarekin eta hurrengo urtean ere gustura segituko dutela adierazi digute.

soaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiak Etxalar bisitatu zuen. Joan den igandean, Bielorrusia eta Grezietatik etorritako dantzariak aritu ziren herri-

ko plazan. Eraiki Dantza Taldeko antolatzaileak gustura zeuden bai Etxalarren bai bertze herrian jaialdiak izandako arrakastarekin eta heldu den urtean ere ai-

tzina segitzeko animoz agertu ziren.

Puzgarriak igerilekuan

Igande honetan haurrentzako puzgarriak pa-

ratuko dituzte herriko igerilekuan. Berez joan den uztailaren 18an egitekoa zen baina eguraldi txarrarengatik atzeratu egin zituzten.

Eguraldiak laguntzen badu bederen, igande honetan goiz eta arratsalde zehar nahi duten guzientzako irekia egonen da.

Clara Santamariaren erakusketa

Abuztuaren 6an inauguratuko da herriko Clara Santamariaren koadro erakusketa 18:00etan egingen den luntz-arekin. Clara Santamaria 2001eko Malón de Echaide Sariko finalista dugu eta erakusketa honetan oihalaren gainean egindako oleo pinturak erakutsiko ditu. Irailaren 5a bitarte egonen da Kultur Etxean. Asteartez 10:00etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara; asteburuetan 12:00etatik 14:00ak arte, eta 18:00etatik 20:00etara.

HERRIKO
OSTATU - JATZESA

loredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazio _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

LESKA

IGANTZI

laz baino eguraldi nahasiagoarekin doa denboraldia

Bi txapela lortu zituen Xabier Seinek Nafarroako Txapelketan

Oskar TXOPERENA

Xabier Sein kirolariak bi txapela ekarri zituen Iruñean Sanferminetan jokatuak Nafarroako Txapelketetatik. Fardo altxaketan Iñaki Bereau bere lagunak lortutako altxaldi kopuru bera lortu zuen berak, baina segundu bat guttiagoz. Ondorioz, beretzat izan zen txapela. Ingudearekin ere lan ederra egin zuen hurrengo egunean. Bere arerioaren altxaldi berak lortu zituen ingudearekin baina aitzinetik aritu zenez berari eman zioten garaipena modalitate honetan ere.

Besten egunak

Bilkura bat edo beretze eginak ditu dagoneko bestak prestatzeko antolatu den batzordeak. Pentsakoa denez, gauza anitz izanen dute oraindik lotzeko eta izanen dugu oraindik astia xehetasunak aipatzeko, baina guttienez bestak zer egunetan eginen diren jakin dugu:




ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Hauexek dira uda honetako ekitaldiak irudikatzen auzeratu ditugun argazkiak. Alde batetik bazkaldoan igeriketa ikastaroetan aritzen diren haurrak, eta bertetik Bortzirietako Euskara Mankomunitateak prestatutako aisialdi ekintzetan jostetan ari direnak.

irailaren 28an, San Miguel egun bezperan, hasiko dira bestak eta urriaren 2an, larunbatez, akautuko dira. Lau egun eta bezpera izanen dira denetara.



Herria ezagutzuz



Oihanberri

Oihanberri

Herritik begiratuta Pagola mendiaren gibelko aldean dagoen lur eremua da Oihanberri. Garai batean bi zaitan egoten zen banatua: Oihanberri eta Mizpirandi –Sunbillarekin mugatzen duen zatia–, baina gaur egun mendi osoari erraten zaio Oihanberri. Pagolako mendia kaxkoz-kaxko egiten du bere mendebaldeko mugak, Bidasoan dauka ekialdekoa, Sunbillako eremuarekin mugatzen du hegoalde eta Larritzeko parajeekin iparralde. XIX. mendea bitartean herriarena zen mendi zati hau. Bertan egiten ziren Berri-zaungo olak behar izaten zituen ikatzak, etxeak egiteko behar ziren zurak eta materialak eta bertan bazkatzen ziren herriko hazindak. XIX. mendearen erdi aldera, ordea, Herriko Etxea behar eta zorrei erantzun ezinik zebilela ikusita, aukera probetxatu zuen Martin Belarra jauntxoak hagitz diru guttiarekin eskuratzen. Hagitz berandu arte bertako uren eta bazken gainean zuen eskubidea defendatu behar izan du herriak eta azkenik 1949 sinatu zuen akordioa jabeekin, Ostatilegi eta Larritzen artean dauden 24 hektareak berreskuratuz.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



KOXKILA OSTATUA

Berrito mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin



Zarandia, 4 - LESAKA

ARANTZA

Udaldi betean dago herria

Barnetegiak, udalekuak, bestak, kontzertuaren prestakuntza eta oporraldia urte sasoi honetako osagaiak

Nerea ALTZURI

Udari hilabete pasatxo joan zaio, eta agudo joan zaigu guri ere opor aurreko epea. Oporraldi aitzineko herriko kronika honetan, mugimendurik ez dela falta garbi geratu zaigu. Urteroko legez, osagai batzuk izaten ditu udak bete betean: eguraldia, oporrak, aisialdirako epealdi gehiago...

Abuztuko barnetegiak hurbil daude. Ia talde bertan egon dira euskara praktikatzeko. Dударik ez da, bisitariak herriari bixitasuna ematen diotela.

Udalekuetan haurrak ere gozaten ari dira. Eurekin, Aitziber Almandoz eta Sonia Lizardi begiraleak lanean ari dira. Abuztuaren 13a bitarte, astean bitan eta arratsaldetan aritu dira.

Uteroko herriko jaiak ere hamabortz egunen buruan ditugu. Norberak ideiak izanen ditu

na begiraleek aitortu dituzte, umeekin ere ikasgai ezberdinak hartzen dituzte. Helburua udako jostaldia euskaraz egitea da eta ongi pasatuz betetzen ari dira xedea. Hala ere, herrian hortan inoiz ez da arazorik izan.

Gazte Asanblada ere, heldu den abuztuaren 21eko Arantza Rock 2004 aurrera eramateko jo ta su lanean ari da. Astero bilerak egiten dituzte eta kolore eta diseinu ezberdinetako kamisetak edozein lekutan 10 euroen truke salgai daude: Fjord, Kuraia, Afrika eta Surfin Kaos izanen dira aurtengo edizioan.

Bestak pasatu eta hurrengo asteburuan beraz, aurtengo Rock jaialdia izanen da.

Uteroko herriko jaiak ere hamabortz egunen buruan ditugu. Norberak ideiak izanen ditu



Udalekuetan haurrak ere gozaten ari dira. Eurekin, Aitziber Almandoz eta Sonia Lizardi begiraleak lanean ari dira. Abuztuaren 13a bitarte, astean bitan eta arratsaldetan aritu dira.

bestak ahalik eta hobekien prestatzeko. Batzuetan besta egiteko

ez delako sobera behar! Edozein modutan, irailan urte sasoiaren erre-

pasoa joanen da. Bitartean ahalik eta hobekien pasa dezazuela!!

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

MALERREKA

Saldiasko eskola aurrera

Datorren ikasturtean ere zabalik izanen da

Mikel ILLARREGI

Aspaldian eskolako etorkizunaz maiz hitz egin da komunikabide ezberdinetan, herriko etxeetan, Hezkuntza Departamentuko bulegoetan eta eskolako atarian ere, noski. Ibili eta buelta datorren ikasturterako eskolak aurrera eginen duela ziurtatu da. Eskolako guraso batzuk, irakaslea eta eskualdeko ikuskaria den Felix Otano eskolan bertan bildu ziren eta eskolarekin aurrera egiteak alde batetik eta ixteak bestetik zer suposatzen zuten aztertu zuten. Garbi ikusi zuten datorren urterako aurreikuspenak ez direla hobereak; eskolan hiru ikasle besterik ez. Bat laugarren mailan, bestea 5 urtekoa eta bestea 4 urtekoa, Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailan, hurrenez hurren. Egoera eskas honetan, hurrengo bi urtetan beste bizpahiru ikasle izanen direla aurreikusi zen. Honegatik, herritarren partetik, eskolarik gabeko herriak bere etorkizuna laburtzen duela mahai gaineratu zuten. Herri batek, herri txiki batek aurrera egin ahal izateko gutxienezko zerbitzuak izan behar dituela gaineratu zuten. Amaitzerakoan, ikuskarriak, eskolaren etorkizuna hurrengo ikasturteko ikasleen gurasoen esku utzi zuten, zabalik egoteko posibilitatea erabat eta aurtengo baldintza berdinetan utzi zuten. Beraz, hainbesteko zalantzen ondoren,

Irakaslearen agurra

Amaitzeko, tarteka herriko kronika idatzi izan duena, oraingo honetan bezala, azken urte hauetan Saldiasko irakaslea izan denez, hainbat ohar adierazi nahi ditu:

-Lehenik eta behin agurtu urte hauetan ikasle izan diren guztiak (Maite, Garikoitz, Endika, Goretti, Mireia, Aritz, Asier, Julen eta Ibai) eta, bihotzez diot, agurrik beroena eta etorkizun polittena izan dezazuen opa dizuet.

-Eskola inguruan, eskolaz ere, interesatu zareten guraso eta bertako guztiei ere adio goxo bat.

-Herri osoari, agur bat.

-Lau urte hauetan hitzez eta idatziz ere,

erantzuna behin ere jasoz ez dudalako, eskatu izan dut funtzionamendua koordinatzeko bilera eta amaitzeko une honetan, oraindik orain, bilera hori ospatu gabe dagoela modu tristean esanez agurtu behar dut. Herrian, gai honetan ere, ardura gehien izan beharko lukeenak Eskolaren egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko adorerik ez du erakutsi eta horrek min egin dit. Eta mina ere, pertsona horrek zenbait tokitan, (Leitzeko zenbait baserri-tan adibidez) nire kontra beste aukerarik gabe egin dituen adierazpenak.

-Gazi-gezak amaieran baina ahal den hoberen eutsi lortutakoari eta lortu beharrekoari. Adio!

Mikel ILLARREGI

Saldiasko eskola aurrera. Aipatu gabe ezin utzi azken lau urte hauetan irakasle izan dena badoala.

Bestetik aipatu beharra da, ikasturte bu-

kaera oparoa izan dela. Alde batetik, Malerrekako V. Ipuin eta Bertso Paper Idatziaren Lehiaketan, 5. eta 6. mailetakoaari dagokionez, Udako Oporrak



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Ikasturtearen amaieran, Eratsungo eta Beintza-Labaiengo eskolako ikasle eta irakasleekin batera hiru eguneko egonaldia igaro zuten Izabako kanpin batean. Hemen ohikoak ez diren hainbat ekintzaz gozatu ahal izan zuten; eskalada, rapela, espeleologia,... eta elkarrekin bizitzea, gustora bizitzea gainera. Honekin batera aipatu beharra da, Beintzako ostatuko Mikelek, azken egunean, ibilaldi zoragarri bat antolatu zuela hiru eskolako ikasleentzat. Eskerrik asko Mikel. Ondoren herriko gurasoek prestatutako hamaiketakoaz amaitu zen ikasturtea.

gaia landuz Mireia Ezkurak irabazi zuen Zortziko txikian eginiko lau bertsoekin. Nafarroako Gobernuako Euskara Zerbitzuak Bertso eta Kopla lehiaketa antolatu zuen eta hemen ere

Goretti Urrutia saldirak 6. mailan, lehen saria lortu zuen eta Asier Erasunek aipamena 3. mailakoan artean. Leitzan ospatu zuten jaialdian beraien bertsoak kantatu zituzten.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Ekitaldiz gainezka ospatuko da agorrilaren 7an Urdazubiko Kultur Eguna

Euskaltzaindiako presidentek kontrabandoari buruzko solasaldia eskainiko du


Margari eta Koro

Abuztuaren 7an, larunbatarekin, Kultur Eguna antolatu du Urdazubiko Udalak. Goizeko 11:00etan infantil mailako pilota partidua jokatuko da, Urdazubiko eta Zuberoako Idauze-Mendiko mutikoen artean. Ondotik, Idauze-Mendiko dantzariak dantza saioa eskainiko dute. 13:00etan, Jean Haritschelhar Euskaltzaindiako presidentek Goardak –Frantziako aduaneroak– eta kontrabandoari buruzko solasaldia eskainiko du. 14:00etan zikiro jatea izanen da, Joxe Angel Elizalde musikariek. Otordu honetara hainbat pertsonai ezagun gonbidatu ditu Urdazubiko Udalak: Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohia, Juan Ignacio Perez gaur egungo errektorea, Patxi Salaberri idazlea (Axular eta Bruno Etxenikeri buruzko hainbat idazlan

egindakoa), Juan Mari Irigoien idazlea, Mikel Laboa kantaria edo Uxue Barkos politikaria, bertzeak bertze. Zikiro jatearen ondoko dantzaldiarekin akautuko da Kultur Eguna.

Ander Gillegi apez berria

Duela bi urte etorri zitzaigun Pedro Laskurain, herriko apeza, irailan joan zaigu. Dakizuen bezala, apezten lantokia Obispadotik erabakitzen da eta kasu honetan Obispadotik Pedro Olazagutiara igortzea erabaki du. Bere ordez Erratzuko apezaz, Ander Gillegi, arituko zaigu, baina aldeketa nabarmen batekin: Zugarramurdin sekulan gertatu ez den bezala, orain apezaz ez da herrian berean biziko. Anderrek hiru herri atenditu beharko ditu (Erratzu, Urdazubi eta Zugarramurdi) eta berarekin batera Imanol Prieto, diakono laguntzailea, arituko da.



Zugarramurdiko plazan bestetan egiten diren ikuskizunetan kotxeen zirkulazioa oztopo handia izaten denez, Herriko Etxeak zirkulazio hori mugatzea erabaki du.

Courougnon margolariaren erakusketak Urdazubin

Courougnon margolariak Urdazubiko hiru tokitan erakusketak jarri ditu. Monastegiko klaustrotan jarria dagoenak "Zorte" dauka izena eta abuztuaren 7an

izanen da aho bustitze-ra joateko aukera (dohainik); La Koskan dagoenak "Mementoak" izenekoa da eta aho bustitzea abuztuaren 2an egingen da. Ikaburukoak berriz "Harriak" izenekoa da eta uztailaren 28rako prestatu da aho bustitzea. Uztailaren erditik abuzturaren ondarreraino izanen dira irekiak.

Trafiko araudi berria Zugarramurdiko bestetan

Aurtengo Zugarramurdiko "Andremari"ko bestetan aldaketa bat izanen dugu. Aldaketa ez da bestetako programan izanen, herriko karrketan baizik: plazan

egiten diren ikuskizunetan kotxeen zirkulazioa oztopo handia izaten denez, Herriko Etxeak zirkulazio hori mugatzea erabaki du. Argazkian ageri den bezala, plazatik pasatuko diren kotxeak sentido bakarrean ibiliko dira (Dantxarineako bide-runtz), eta Dantxarineatik herri aldera heldu direnak Sagarditik goiti joan beharko dute eta plazara sartu gabe Katalenea aldera segitu. Etxenikea eta Palazio-ko aintzineko aldetik ezin izanen da pasatu. Aldi berean herritarrei erregu berezi bat ere egin nahi zaie: egun hoietan Kataleneko tar-tekan kotxe aparkaturik ez uzteko.

GOIZUETA

Elizak ez dio Plazeneko alorra herriari saldu nahi

Iruñeko Artzapezpikutzak ez du aintzat hartu udalaren eskaintza eta subastan jarriko du

Esteban AROTZENA

«Azkenean herriarentzat izanen da lursail hori eta beste biderik ez baldin bada espropiaziora joko dugu». Imanol Legarreta alkatearen hitzak dira eta Plazeneko Eulogia Navarra zenak elizari emandako alorraz ari zen. Orain dela hilabete batzuk 74.500 euro eskai-

ni zizkion Udalak Artzapezpikutzari herriko lekuri ederrenean kokaturik dagoen 1.426 metro koadroko lur sailaren truke. Honen erantzuna uztailearen 9an ailegatu zen eta gutunak dioenez, bere teknikoaren balorapen ekonomikoa ez dator bat udalarenarekin. Beraz, alorra enkante publikora



ARGAZKIA: INIGO LUJANBIO

Elizari ez dio kezkarik sortzen etxebizitza faltaren egoera larriak. Argazkian, hainbeste etzabaida sortzen ari den Plazeneko alorra.

aterako zutela zioen gutunak. Horrela ez eginenez gero, «Eulogia Navarrok eskuzabaltasunez emandakoari merezi bezalako etekina ez zitzaiola aterako» zioen azkenean Iruñetik bidalitako erantzunak.

Herriko gazteentzat pisuak egin nahi dira Plazenekoa izandako alorrean, eta 10-12 etxe-

bizitza eraiki daitezkeela uste dute udalean. Gazteen eskaerei erantzuteko herrian bertan ia lur propiorik ez duenez, Udalak lehentasuna eman dio lur sail honetaz jabetzeari.

Usurbideko harriko pinuak

Usurbideko harria inguruko insignis pinua-

ren 6.642 metro kubiokoak 323.337 eurotan saldu ditu Udalak.

Nafarroako Kutxak dirulaguntza

Nafarroako Kutxak 9.000 euroko dirulaguntza eman dio Udalari lehengo urrian atak zabaldu zituen Zaharren Egoitzan egindako lanen truke.

ARESO

Ingurumenaren aldeko jarduna abuztuaren 21 eta 28an

Astomela-Matxain erreka garbitzeko bandoa atera da

Juana Mari SAIZAR

Ingurumenaren alde borondatez egiteko jardunaldiak antolatu ditu Udalak eta astomela-Matxain erreka garbitzeko bandoa zabaldu du alkateak, Olazarretik hasita leitzararen erreka iritsi arte. Nafarroako Kutxako fundazioaren dirulaguntza 2220€ izanen du proiektu honek. Materiala, janaria, garraioa eta

proiektuaren prebisioa estaltzeko erabiliko da. Abuztuaren 21 eta 28an gonbidatuta daude herritar guztiak parte hartzen.

Festak antolatzeko batzordea

Festak antolatzeko lehenengo aldiz udalak batzorde bateri 9000€ eman dizkio. Zezenak, plater tiraketa eta argi

indarretaz udala arduratuko da, medikua eta erizaina ekarriko dituzte zezenak plazan dauden bitartean eta zezen arduradun Migel Mari Pellejero izango da.



ARGAZKIA: GARA

Sokatira taldeak txapela lortu zuen 560 kilotan

Lehiatua suertatu zen, Gaztedirekin tiraldi gogorak eta puntuetan berdintsu zirenez, azkenean berdinketa hausteko tiraldia gogorra jokatu zuten. 600 kilotan, berriz, bigarren postua lortu zuten Nuarbe arerio gogorraren kontra. Orain 640 kiloko prestatzen jarraitu beharko dute.

GAZTELU

Santo Domingo bestak abuztuaren 3tik 8ra

Larunbat goizaldean rodeo amerikarra izanen da

Asteartea 3

19:30etan suziriak eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira. **21:00etan** zopak herriko ostatuan.

Asteazkena 4

Santo Domingo eguna

11:00etan kalejirak txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia. Ondoren salda beroa Herriko Ostatuan. **18:00etan** pilota partidoak (Erreka-ko Pilota Eskolakoak). **20:00etatik 22:30etara** dantzaldia AGERRALDEekin.

Osteguna 5

16:00etan mus eta partxis txapelketak. **21:00etan** afaria Herriko Ostatuan.

Ostirala 6

9:00etan gosaria Herriko Plazan. **14:00etan** herri bazkaria. **Arratsaldean** herri kirolak eta ondoren dantzaldia AGERRALDEekin. **22:00ak aldera** afaria herriko plazan.

Larunbata 7

Haurren Eguna

Arratsaldean haurrendako jokoak (puzgarriak, karts, zezen mekanikoa, etabar...). Eta ondoren



Elgorriagako umeek ederki pasatu zuten pailazoekin duela bi urteko Santiago bestetan.

txokolatada. **20:00etatik 22:00etara eta 1:00etatik 4:30etara** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **Goiz aldera** Rodeo Americano.

Igandea 8

10:00etan kalejirak. **13:00etan** aizkora apostua: Mikel Mindegia Azurmendiren aurka.

18:00etan trikitixa erakustaldia (Lesakako trikitixa taldea). Ondoren ahari apostua. **20:00etatik 22:30etara** dantzaldia AGERRALDEekin.

ARANO

Pilota txapelketako finalak jokatu dira ekainaren 23an

Kontxi KLABER

Uztailaren 23an jokatu ziren pilota txapelketako finalak. Neskak, palaz 6 bikotek osatutako taldea izan da eta finalean Nagore-Maitane eta Maialen-Nerea izan ziren finalean. Mutilak, berriz, palaz 13 bikote elkartu ziren eta Iñaki-Iñaki eta Eñaut-Mañel izan ziren finalean. Azkenik, mutilak, eskuz 8 bikoteko taldeak Xabier-Gorka eta Joxe Anjel-Iker izan ziren finalistak.

Aerobikeko afaria

Urtean zehar aerobiken ibili direnak ekainaren 30an kurtsoa amaitutzat eman zuten iraila artean eta joan zen larunbatean elkartu ziren hogei lagun inguru kontzeju tabernan afaltzera.



ARGAZKIAK: KONTXI

Umore ederrean elkartu ziren afaltzera aerobikeko emakumeak.



HERRI OSTATU
GAZTELU

- Logelak
- Gosariak, bazkariak, afariak...
- Eguneko menua eta asteburutan menu bereziak
- Ospakizunak, kinto bestak, etabar...
- Terraza

Tel: 948 450105 • Mug.: 647 043501



TXARUTA, S.L.

Iturgintza, Kalefakzioa eta Gasa

Ongi pasa bestak!

Tel: 948 45 17 63 - 659 77 00 15 • GAZTELU

SUNBILLA

Santiburtzio
bestak
abuztuaren
10etik 14ra
ospatuko dira
Ramon Latasa aizkolari saria
jokatuko da egun haundian



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Urtetik urtera arrakasta haundiagoa dute zartagi eta aitzur tiraketa txapelketek. Ondoko orrian, txapelketa horietako irabazleak eta goitibehera lehia-ketako irudi bat.

Asteartea 10
18:00etan proba konbinatua. Desafioa bi koadrilen artean.
20:00etan suzuria herriko etxetik, ondotik kalejira Beti-Alai txarangarekin.
21:30etan Baztan zopak Ulibeltza Elkartearen.
0:30etatik 4:00ak arte dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Asteazkena 11
Tiburzio
Deunaren eguna
10:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin.

11:00etan Meza Nagusia Tiburtzio deunaren ohorez.

12:15etan afizionatuen arteko pilota partiduak:
• Txikiak: I. Espelosin eta A. Espelosin; G. Sanjurjo eta J. Juankorenaren kontra.

• Gazteak: M. Jorajuria eta J. Juankorena; J. Sanjurjo eta J. Jorajuriaren kontra.

• Afizionatuak: Etxeberria eta Otxotorena; Altzugarai eta Erasoren kontra.

19:00etan Ramon Latasa saria:
• Aizkolariak:

Larretxea-Olasagasti.
Nazabal-Mindegia.
Peñagarikano-Arrospide.
• Harrijasotzaileak:
Ostolaza - Goenatxo.
22:30etan su artifizialak Astondoa pirotekniarekin.
Arratsaldez eta gauetz dantzaldia SALABERRIrekin.

Ortzeguna 12
Koadrilen eguna
Egun guztian herrian barna Tren txutxua.

10:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin.

10:00etan jubenilen txirrindulari proba.

14:30etan bazkaria Bustitz ostatuan Betilak Alai txarangarekin.
17:00etan trikitixa jaialdia.

19:30etan Sunbillako segalari txapelketa binaka: M.Mitxelena-P. Mitxelena; M. Irazoki-I. Mikelarena; S. Espelosin-L. Petrirena.

Arratsaldez eta gauetz

dantzaldia SALABERRIrekin.

Ortzirala 13
Haurren eguna
Goiz eta arratsaldez kart eta gazteluak.
11:30etan goitibeherak.
12:30etan akordeolari talde baten emanaldia.
15:30etan plater tiraketa.
19:00etan toka-aitzur-zartana txapelketa.
Arratsaldez eta gauetz dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Larunbata 14
Ezkonduen eguna
10:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin.
10:00etan mus txapel-

MARISOL
JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Maria Jesus

HARATEGIA

Bertako haragia saltzen dugu

Ongi pasa bestetan!

Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

ALTZUBI MENDI LAN-ESKERRAZIOA
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
SUNBILLA - HARAGIOA
Ongi pasa bestak!

FONDA

o s t a u a

Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA



Juan Luis Apeategia Garraioak

Mendeberri • SUNBILLA
☎ 948 450778 • 639 723673



GAZMENDI eraikuntzak

SAN JUAN KARRIKA • GURE BORDA
SUNBILLA

TfNOAK: 948 450130 - 948 451666
MUGIKORRA: 619 469 784

keta. **12:00etan** igeri-
lekuan haurrendako
probak.

18:30etan pilota parti-
duak. • Gazteak: Ape-
zetxea eta Ibarra; Ola-
zabal eta Beteluren kon-
tra.

• Handiak: G. Elizalde
eta Uharte; Etxebeste
eta Etxegaraireren kon-
tra. Larralde eta X. Eli-
zalde; Arraztoa eta X.
Arraztoaren kontra.

Arratsalde dantzaldia
SALABERRI musika-
riarekin.

0:30etan Txutxin Iba-
ñez eta Jesus Tapiz.

1:30etatik 4:30etara
dantzaldia JALISKO
BAND takdearekin.



ESPELOSIN

ERAIKUNTZAK

Auloa Baserria

Tfnoa: 948 45 07 73

Mugikorra: 619 416 959

SUNBILLA



SUNBILLA

*Sunbillako Udalak
Besta zoriontsuak
opa dizkizue
sunbilar
eta bisitari guztioi*



☎ 948 635458

Faxa 948 635457

ttipi-ttapa@ttipi.net



Iruribieta etxea
SUNBILLA

☎ 948 450 399

☎ 696 974 454

Nissan Pick Up, Lada Niva,
Nissan Patrolak motzak eta luzeak
Opel Frontera motzak eta luzeak

Terrano II eta Patrolak luzeak eta motzak

Besta ederrak pasa!!

BEINTZA-LABAIEN



Herriko bestak uztailaren 30etik abuztuaren 3ra

Larunbat eta igandean aizkora apostuak izanen dira

Ortzirala 30

20:00etan Altzaferoak, besteei hasiera emateko.

Ondoren kalejirak herriko trikitalariekin.

21:00etan Zopak herriko ostatuetan.

Gauetz dantzaldia FRANZISKO akordiolariekin.

Larunbata 31

11:00etan kalejira herriko trikitalariekin.

12:30etan Pilota partidoak:

Babaze - Ezkurra
Urrutia - Arregi

19:00etan Aizkora apostua:

Mikel Mindegia - Floren Nazabal; Donato Larretxea-Antonio Jaunarena

Arratsaldez eta Gauetz dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea 1

11:00etan Argi-soinuak Iturengo txistulariekin.

12:00etan Meza Nagusia.

13:30etan Herri Kirolak: Josetxo Urrutia harrija-sotzailearen emanaldia.

AIZKORA APOSTUA: Javier Mindegia - Jon Telletxea; Jose L. Telletxea - Jexux Etxeberria
Arratsaldez: JOLAS PARKEA.

20:00etatik 22:30etara dantzaldia: JALISKO BAND eta CHUCHIN IBANEZ en eskutik.

Gauetz dantzaldia FRANZISKO akordiolariekin.

Astelehena 2

11:00etan kalejirak.

12:00etan Plater haustea.

17:00etan Mus txapelketa.

Arratsaldez Jolas Parkea.

18:30etan abere erakusketa, Gorritiren eskutik.

Atsaldez eta gauetz dantzaldia LAJA eta ARRIZABALAGA trikitalarien eskutik.

22:30etan Tortilla lehiketa.

Irabazlearendako saria: urdaiazpiko bat.

Asteartea 3

11:00etan kalejira, Iturengo txistulariekin.

Eguerdian Herri Kirolak.

14:00etan herri bazkaria Xebastian LIZASO eta ANGEL M. PEÑAGARIKANO bertsolariarekin.

Bazkal ondoren karrika ronda Iturengo txistulariekin.

Arratsaldez eta gauetz dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariekin.

KULTURA



Juan Carlos Olaetxea margolari beratarrak Lezakako zubia irudikatua du bere margolanetako batean.

Hainbat margo erakusketa zabaldu dira Baztanen

ttipi-ttapa

Uda ailegatzearekin batera, hainbat pintura erakusketa zabaldu dira eskualdeko erakusketan. Gehienak Baztanen izanen dira. Uztailaren 16tik abuztuaren 16ra Juan Carlos Olaetxea beratarraren margolanak ikusgai daude Jaime Urrutia karrikaren 38.ean. 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Uztailaren 24tik abuztuaren 31ra Tomas Sobrino margolariaren "Begiradak" erakusketa zabalik dago Arizkunenean. Egunero 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Uztailaren 23tik irailera Ana Marin margolariaren erakusketa iza-

nen da Bergarenean, 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Jose Mari Apeztearearen margolanak Erratzuko Zubietean ikusgai izanen dira abuztuan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Xabier Soubeleten lanak uztail eta abuztuan ikusgai daude Arizkungo Sasternean, 11:30etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara. Fernando Gorostidiren margolanak Bozateko Sokoan izanen dira, irailaren 4a bitartean. Begoña Durruty eta Amaia Zinkunegiren margo eta eskulturak Arizkungo Ostatuan izanen dira ikusgai arratsaldez.



LEITZA

Berriz ere txapeldun han eta hemen

Herri kirolean hainbat txapel eta marka lortu dituzte gure kirolariek

Mikel ILLARREGI

Batetik eta bestetik, tarteka halako berriak iristen zaizkigu. Duela hilabete eta erdi Iñaxio Perurena izan zen esku batez errekorra jarri zuena. Ondoren sanferminetan harri txikiarekin, bere aitaren txanda izan zen, Iñakirena alegia. Honetan bigarren Josetxo Urrutia gertatu zen. Kirolarekin jarraituz Beñat Saralegi gaztearena izan zen. Honek lehenbiziko aldiz parte hartu zuen Nafarroako Aizkolari Gazte-txoen Txapelketan. Aipatu beharra dago, bere lehengusua Ruben hirugarren gelditu zela. Aipatzeko asko badira ere (sanferminetako en-

tzierroaren lasterketan parte hartu zuten Irazoki anaiak, hau idazterakoan amaitu gabe jokatzen ari den plazako binakako pilota txapelketako txapeldunak,...) bestelakoa da Baztan-Malerreka-Bidasoako Trikitixa txapelketan Olatz Alduntzin eta Irati Olanok lortu zuten txapela. Hau Lesakan ospatu zen eta bertan zonaldeko hainbat trikitilari eta pandero jotzailer parte hartu zuen.

Maxurrenea herrintzat

Abuztuaren 1ean, Urko Arozenak, bakarlari gisa, marinba eta txistu kontzertua eskainiko du udaletxeko Batzar are-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Sahararrak itzuli dira

Bost dira aurtien hona etorritakoak. Kopuru txikia izanda ere, nabariak dira, ez azal koloreagatik soilik, bizikletan nonahi ikus daitezkeelako edota gauza eta egoera askoren aurrean jartzen duten arretagatik.

toan eguerdiko 12:00etan. Sarrera 5 euro.

Begira zenbat beira

Bidrio edota beira biltzeko zazpi edukiontzi daude herrian. Azkenean 46.486 kilo beira jaso da. Asko? Gutxi? Normala?

Zaila da erantzun zuzen eta bakar batez erantzutea. Dena den, biztanle kopurua kontuan hartuz eta beste herrietako datuekin konparatuz, beheagotik gabiltzala esan beharra dago. Hemen biztanleko 2,6 kilo hileko ateratzen da eta besteetan 3,5 ki-

lo biztanleko, gutxi gorabehera. Hala ere kopuru hauek –segur aski– gora egingen dute hurrengo hamabost egunetan festak direla medio. Beno eta festak aipatu dugunez, festa onak, umoretsuak eta gozagarriak iraun ditzazuen, iraila arte!



PERTSONAIA Urko AROZENA

«Bakoitzak eta norberak instrumenturen bat ikas dezala, horrekin gozatuko du»

Urko Arozena musikariak, kontzertua eskainiko du Maxurrenea Kultur etxea leloarekin bat eginez. Hau aprobetxatuz elkarriketatxo bat egin diogu. Hemen bizi bada ere, lehen-

dik ere, Incansables txarangarekin etortzen zelako ezaguna dugu eta berak ere ederki ezagutzen zuen herria, juerga egunetan, behinik behin.

-Noiz hasi zinen Leitza eta etortzen?

-1992. urtez geroztik. Eta esan beharra dago Lesakakoekin batera ezagutu ditudan festarik hoberenak zirela. Kriston juergak egiten genituen jotzearekin batera. Dena den gero, bakailao musika nagusitu zen eta giroa aldatu ere bai. Gero Gotzone ezagutu nuen (gero umea), Alai ekarri genuen,... eta hemen-txe nago...

-Baina zure lanbidea orain zein da?

-Ni musika irakaslea naiz, musikaria lanbidez eta musikaria afizioz. Nire aita, aitona eta arrekoak ere txistulariak ziren. Inguru hau zela eta txarangarekin ateratzen nuenarekin Zargozara joan nintzen hiru urtez perkusio ikasketak amaitzera. Ondoren Perkusio irakaslea naiz Beran, Hernanin, Donostian,...

-Orain Maxurrenearen alde zerbait egitea bururatu zaizu, zergatik?

-Hemen bizi garelako herriko gauzetan parte hartzea inportantea iruditzen zait, eta gai honetan gehiago agian. Hori oinarritzat har-

turik, nik zer egin dezaket? pentsatu nuen eta musikarekin zer ikusi zuena behar zuela izan pentsatu nuen. Gaiaz aparte aitzakirekin bat behar da musika mundua kanpoan ere lantzeko.

-Txistua eta marinba?

-Bai, arraro xamarra badirudi ere, biak herri tresnak dira, folklorikoak alegia eta biak musikaren mundu klasikora igaro dira eta horregatik aukera ezin hobea dela uste dut, bakarlari gisa jo behar dudala kontuan hartuz.

-Kontzertuak 5 euro?

-Bai, eta ez dira niretzat, "Maxurrenea herrintzat" ekitaldietarako da. Hemen pagatzeko ohiturarik ez dago. Hori garbi ikusi zen Sahararen aldeko kontzertuan. Nire ustez ekitaldietako lana baloratzeko modu bat da zerbait pagatzeara. Denak ekologistak, edota edozein aldarrikapenaren aldeko gure poltsa ikuttu arte...

-Aholku bat.

-Bakoitzak eta norberak instrumenturen bat ikas dezala, horrekin gozatuko du. Musika egin ahal izateak pertsona asko osatzen du eta ia herri guztietan dauzkagu musika eskolak eskura. Aprobetxatu!

BAZTAN

Zigako San Lorenzo bestak abuztuaren 6tik 11ra

Ortzileria 6

20:00etan suziriak bestei hasmenta emateko eta ondotik musikariak karraketan barrena. **21:30etan** Baztan-zopak Etxezurian. **00:30etan** dantzaldia KLAIN-KLAIN taldearekin. **6:00etan** gosarie denendako.

Launbeta 7 Gazteen Egune

10:00etan argisoinuak. **14:00etan** gazteen bazkaria Tellerin. Ondotik sorpresa zutik dagoenarendako. **18:00etan** VI. pala txapelketa herrikoia. **20:30etan** dantzaldia IÑAUS taldearen eskutik. **22:30etan** herriko frontoian afaria. Ondotik Josetxoren xelebrekeriekin dantza alaituak. **00:30etan** gaupasa IÑAUS taldearekin. **6:00etan** xinger jatea.

Igendia 8

9:00etan argisoinuak. **10:00etan** Meza Nagusia. **11:30etan** Zigako VII. mus txapelketa. **18:30etan** goitibeherak Iruñeko eskuderiaren eskutik. **20:00etan** dantzaldia FRANTZISKO akordiolariarekin.

Astelehena 9 Haurren Egune

10:00etan argisoinuak. **14:00etan** haurren bazkaria. **14:30etan** gazte-

en bazkaria Zigako begiratokian inaugurazioa emateko. **16:00etan** haur jokoak herriko plazan eta ondotik txokolatada goxoa. **18:00etan** haurrendako gaztelu puzgarriak. **17:00etan** trikipoteoa etxez etxe (kasuman!). **20:00etan** dantzaldia ILUN taldearekin. **22:30etan** herriko afaria frontoian. **00:30etan** dantzaldia ILUN taldearekin. **6:00etan** gosaria.

Asteartea 10 San Lorentzo Egune

10:00etan argisoinuak. **12:00etan** Meza Nagusia. **13:00etan** herriko argazki zaharren erakusketa eliz atean. Ondotik hameketakoa. **18:30etan** Baztango dantzarien saioa. **20:00etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **22:30etan** afarie frontoien. **00:00etan** TRIKIDANTZ taldearekin gaugiroa. **6:00etan** plater konbinatuak eta ondotik TRIPUTXIN txarangaren saioa.

Asteazkena 11 Zikiro Egune

9:00etan gosarie sukaldariendako. **10:00etan** argisoinuak azken aldiz. **11:00etan** VII. Mus txapelketaren finala. **14:00etan** zikiro jatea JOSETXOK alaitua. **20:00etan** dantzaldia



Zigako gazteak Modesto akordiolariarekin, herritarrek lagunarteko mahai inguruan eta beheitian zikiro jateko irudia. Aurten ere gisako irudiak errepi-
katuko dira San Lorentzo bestetan.

NARRATS taldearen es-
kutik. **22:00etan** zikiro

afaria. **0:00etan** Gaixoa
Ni bestak akitzeko.

6:00etan gosarie eta pa-
rranda gehiago.

BAZTAN

Hamabortz herrietako orgak karrikaratu ziren Baztandarren Biltzarrean

Elizondoko Beti Zurrutak taldeak irabazi zuen lehenbiziko saria

tipi-ttapa

Hamabortz herrieta-ko orgak karrikaratu zi-zen uztailaren 18an ospatu zen Baztandarren Biltzarrean 41. edizioan. Guzi horien artean, Elizondoko Beti Zurrutak taldeak egin zuen *Gorramendiko Base Amerikarra* izan zen onena epaimahaiaren ustez eta beraientzat izan zen garaipenaren atabala. Felix Iriarte zenaren semeak, Mikelek eman zien garaikurra irabazleei. Arizkungo orgak, bere aldetik, atabalarari historikoa omendu zuen.

Bigarren saria Oronozek eraman zuen. Oronoztarrek Arretxea-ko Manuel Arregiri omenaldia eskaini zioten. Berriki moldatu dute Arretxea eta jauregi ho-

rren maketa egin zuten eta bizitza osoa bertan bizitu den Manuel orga gainean izan zen. Hirugarren saria Gartzain-ko orgak eraman zuen, garai bateko gasna egitea irudikatuz.

Hauetaz gain, orga ikusgarriak izan ziren: Almandozko ihizilarien gorabeherak, Berroeta-ko Gerra Zibilari buruzko orga, Anizko garai bateko artzain jokoak, Zigako auzolana, Irurita-ko zinbel ehiza, Amaiurko «Gazteak be-ro, elizak hotz», Arraioz-ko laxoa plaza, Elbete-ko txopo goratzea, Azpilketako asto ferie, Erratzuko damak, Le-karozko baztan-zopak, Herri Ekimena eta Eli-zondoko borts koadrilek aurkeztutakoak: irabaz-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Beti Zurrutak taldearen Gorramendiko base militarra izan zenn orga irabazlea. Saria, Mikel Iriarte, Felix Iriarte zenaren semearen eskutik jaso zuten.

leez gain, Aise taldeak Baztandarren Biltzarra eguna irudikatu zuen,

Maidernekoak taldeak txikito tren, Belatzak taldeak Baztango etxe-

etako armariak eta Fal-farak taldeak Kinto Re-aleko auzia.

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



AMAIUR • © 948453060



asnap.me

servicio asociado de la propiedad y gestión empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltzerak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONOSTIA
Rúa Sarriena, 4 bilera
Tele: 948 431823 Tele/Fax: 948 431418
www.asegur@asnappyme.com

ELIZONDO
Santiago, 51 bilera
Tele: 948 580 506
elizondo@asnappyme.com

BEZCOSA
Santiago, 3 bilera
Tele: 948 582238 Tele/Fax: 948 583944
bezcosa@asnappyme.com

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatua
Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433

Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

SENPERE

Larunbat goizetako merkatuak giro ederra sortzen du karrika nagusian

Uda huntan ere Euskal Herriko koralik onenak elizan entzunen dira

Franck DOLOSOR

Merkatua Senperen ez da amets bat egia baizik. Herriko etxeak eta saltzaileak lanean aritu dira proiektu hau sortzeko. Orain egia bihurtu da eta larunbat goiz guziz elizako plazak merkatu baten itxura hartzen du. Saltokien artean denetarik ikus daitaie, ogi bereziak, fruituak, ezpartinak, barazkiak eta gasnak berzeak bertze. Berritasunen artean, arto xaharrekin edo xingar xerra ttikiekin egin ogiak, Saboriako gasnak ala ezpartina modernoak daude. Merkatuak giro ederra sortzen du aste oroz karrika nagusian eta ez da dudarik ondoko urteetan eraikiko den herriko saihsbideak on

eginen diola oinez ibili nahi duenari. Saltzaileek pario bat egin dute animazioak sortzeko herrian.

Euskal musika nagusi izanen da udan

Uda guziz bezala, animazio ainitz bada herrian. Behi lasterkaldiak, euskal dantzak, andaluziako feriak edo pilota erakustaldiak ikusten ahal dira astelehenetan, asteartetan eta ortzirala arratsetan. Ekitaldi hauek zezen plazan, pilota plazan, Arbixaren etxean eta Gantxiki kiroldegian egiten dira. Bertzalde, asteazken arratsetan Euskal Herriko boza ederrenak entzun ahal izanen dira elizan. Kantaldi hauek



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Herriko hautetsiek elkartean lana maiz goraiatzan dute sariak banatuz. Berriki herriko kirolariak eta asteazkenetan haurren denbora pasaz arduratzen diren lagunak eskertu ditu herriko etxeak.

gaueko 9.30tan hasiko dira. Uztailaren 28an Xaramela izanen da, agorrilaren 4, 11 eta 18an

Arraga, Gaztelu Zahar eta Errobi kanta taldeak. Azkenik, buruilairen lehenean, Elhea kora-

laren kantaldia eginen da. Bortz kantari talde hauek Euskal Herriko hoberenatarik dira.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

ZOANSA

SEAT ALFA ROMEO VOLVO SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

AZKAIN

Artzain xakur txapelketa antolatu du Altxa Lili elkarteak agorrilaren 8an

Larrun mendi-lasterketa proposatu du egun berean Elgarrekin taldeak

Angela eta Xamo

Larrungo lasterketa

Agorrilaren 8an bertze manifestaldi nagusi bat izanen da herrian. Sasoin huntan aspalditik egiten den bezala, Larrun mendi-lasterketa proposatzen digu Elgarrekin Krosa taldeak. 500 bat kide etorriko dira lasterketa fama honetara, Frantziako eskualde guztietatik, Euskal Herritik... Azkaindar andana batek ere parte hartzen du lasterketan, gehienek Larrungoa baizik ez dute egiten. Udako manifestaldietatik, Larrungo lasterketak toki berezia hartzen du herriko jendearen bihotzetan. Igande goizetan, herritar ainitz ibiltzen da Larrungo itzulia eginez, eta lasterketaren egunean, ikustekoa da nola sustatzen dituzten korrikalariak.

Artzain Xakur Txapelketak Ipar Euskal Herriko artzain xakur hoberenak biltzen ditu, eta badakigu aitzinetik erakusketa pollit bat proposatuko digutela.

Txapelketa horren bidez, konturatzen ahal gira artzainaren lana ez dela beti errez, batez ere mendian. Egia da, ardiak elgarretartzeko mementuan xakurrek lan handia egiten dutela. Artzain eta xakurren artean beraz kideasun handia behar da. Jende ainitz hurbiltzen da txapelketa horren ikusterat, turistak, bai ta herrikoak ere. Eta irabazitako diruarekin, Altxa lili elkarteak manifestaldi batzuek antolatzen ahal ditu urtean (olentzero, Ihauteriak...).



Azkaingo bestak

Heldu den agorrilaren 13an hasiko dira, 16a arte. Aurten ere gazteek egitarau pollitia proposatuko digute. Agorrilaren 13an, Triatloia eta besten idekitzea Kiroletan, esku huska Azkaine ta Lesakarren artean, Azkaindarren afaria Martintxok alaiturik, dantzaldia Gaubele taldearekin. Agorrilaren 14an, esku huska plazan, zintzur bustitzea, indar jokoak, Bapateko Antzerkia, kontzertua Kuraia taldea, ponponen suak, dantzaldia Tabasco taldearekin. Agorrilaren 15ean, Meza Nagusia, esku huska, zintzur bustitzea, dantza erakusketa Ikasleak taldearekin, fandango txapelketa, Azkainen kantuz Martintxorekin, kantaldi Tapia ta Leturia, dantzaldia Patcha Mama taldearekin. Agorrilaren 16an, pilota partida, zintzur bustitzea, esku huska trinketian, dantza piko Patxi Perez eta Batbiru taldearekin, kontzertua MIX6T, Zipotzero. Gazteek bestak gozatuko dituzuela espero dute.



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

SARA



ARTXIBOKOA

Sarako argazki zaharrak eta berriak ikusgai izanen dira herriko leku ezberdinetan.

Feria eta GR8 ibilaldiaren arrakasta

Uztailaren 18an, urtero egin ohi den bezala, turismo bulegoak udako lehen eskulangintza eta gastronomia feria antolatu du. Orotara 40 saltzaile edo artisauek parte hartu dute egun hortan eta erran behar da jende multxo bat hurbildu dela, bai turistak bai eta Saratarrak ere. Bestalde, ber egunean GR8 mendi ibilaldia antolatua zuen kontseilu orokorrak; 750 mendizalek parte hartu dute leku desberdinetatik abiatuz. 200 pertsona Kanbotik hasi dira, 300 Pinodietatik eta 250 Amotzetik. Ibilaldi goxo baten ondotik lehenak eguerditan arribatu dira Sarako plaza eta azkenak 16:30-etan. Lehen esperientzia polita eta arrakatsua izan da antolatzailerentzat. Eta ez da ahantzi behar beste feria eta ekitaldi ainitz antolatuak direla udan hala nola herri kirolak, dantza, pilota...

Lehengo eta gaurko Sarari buruzko erakusketa herrian

Larrungo treinen laurogeigarren urteurrenaren karietara

Saski eta Joana


Aurten, nolaz Larrungo trenak 80 urte bete dituen, Sarako herria okasione horretaz baliatu da erakusketa baten antolatzeko. Turismo bulegoak euskararen bilakaera eta Jose Miguel Barandiaran antropologoaren bizia aurkeztu ditu. Plazako

kiosko azpian ere informazioak aurkitzen ahal dira pilota eta lehengo biziari buruz. Bestalde, Sarako gune desberdinetan 80 urteko historia ezagutzen ahal duzue hala nola: plaza, Ortillopitz, Larrun, euskal pastizaren museoa, "Etxola" abere parkea, Sarako lezeak. Leku gu-

zietan argazki zaharrak eta gaurkoak ikusten ahal dituzue eta gainera, oinezko ibilaldi bat proposatua zaizue plano simple bat segituz. Jakin behar da, erakustaldi hori Sararentzat interesgarria izaiten ahal dela, eta ez dela bakarrik kanpotarrentzat egina.

Pilota

Sarako gazteek, Etchegaray, Petin eta Elhorga hirukoteak, joko garbin, Euskal Herriko txapelketaren finala jokatuko dute uztailaren 18an Angelun eta marleruski txapela ez dute eskuratu. 40 eta 31 galdu dute Bidaxuneko ekipa baten kontra.



EZKONTZAK

Eduardo Eugi Apeztegia eta **Mari Carmen Mendizabal Taberna**, Igantzi eta Lesakakoa, otsailaren 28an.

Jose Maria Aymerich Soler eta **Teresa Carmen San Julian Arrupe**, Iruñekoak Lesakan, apirilaren 17an.

Francisco Javier Olaetxea Aiestaran eta **Maria Belen Etxepare Ariztegi**, Lesakakoa, ekainaren 5ean.

Sebastian Pinto Franco eta **Itziar Maritxalar Ado**, Tarifa (Cadiz) eta Berakoa, uztailaren 10ean.

Yurij Stamenkov Hristov eta **Valina Marinova Ivanova**, Montana-Bulgaria eta Orehovitsa (Bulgaria), Beran, uztailaren 17an.

Ricardo Ansalas Arregi eta **Idoia Bidart Oskariz**, Iruña eta Elizondokoa, ekainaren 26an.

Iñigo Pradera Nafarrete eta **Ana Maria Panpin Fernandez**, Donostia eta Gasteizkoa Erratzun, ekainaren 19an.

Ion Oteiza Lizasoain eta **Ana Garate Bidegain**, Iruña eta Irurritakoa, uztailaren 10ean.

Joaquin Santa Catalina Piedrola eta **Maria Isabel Lopez Quevedo**, Donostia eta Madrilgoa, Elizondon, uztailaren 10ean.



SORTZEAK

Naroa Huarte Juanotena, Narbartekoa, uztailaren 5ean.

Julen Mitxelena Arozena, Berakoa, uztailaren 10ean.

Marina Zabala Sarasola, Doneztebekoa, ekainaren 29an.

Ioritz Mitxeo Oskoz, Doneztebekoa, uztailaren 12an.

Xabier Migeltorena Maritxalar, Donamariakoa, uztailaren 17an.

Iñaki Jubera Idoate, Lekarozkoa, uztailaren 5ean.

Julen Zelaieta Aleman, Elizondokoa, uztailaren 13an.



HERIOTZAK

Basilia Galainena Etxeniki, Urdazubikoa, uztailaren 12an, 93 urte.

Guadalupe Zaldain Zugarramurdi, Urdazubikoa, uztailaren 16an, 86 urte.

Imanol Zubieta Irizar, Berakoa, uztailaren 7an, 22 urte.

Serafina Etxepeteleku Pikabea, Berakoa, uztailaren 6an, 89 urte.

Ramon Moreno Galainena, Elbetekoa, uztailaren 7an, 79 urte.

Teresa Maia Etxeberria, Oronoz-Mugarikoa, uztailaren 9an, 80 urte.

Angel Gamio Bikondoa, Irurritakoa, uztailaren 11n, 88 urte.

Florencio Mindegia Irazoki, Berakoa, uztailaren 12an, 71 urte.

Lidia Goñi Astiz, Doneztebekoa, uztailaren 14an, 94 urte.

Avelino Susperregi Otxoteko, Lesakakoa, uztailaren 16an, 93 urte.

Pablo Altzugarai Etxegarai, Berakoa, uztailaren 17an, 84 urte.

Enrique Azkarate Ortiz, Elizondon, uztailaren 9an, 57 urte.



Avelino SUSPERREGI OTXOTEKO

(Lesaka, 2004.07.16)

Udazkeneko usoen antzera joan zara eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA



Eskela eta eskertzak 948 635458

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da.

Dirua **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa** para igorri faxez (948 635457) edo postaz argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 Etxalar

PILOTA

Inaxio Errandoneak Nafarroako lau terdiko txapelketa ofiziala irabazi du

Labriten jokaturako finalean 22-20 irabazi zion Berakoak Armendarizi

A.A.

Uztailaren 30ean berrogei urte beteko ditu Inaxio Errandoneak eta adin horretan lortu du bere banakako lehen-dabiziko txapela. Uztailaren 11n jokatu zen Labriten Nafarroako lau terdiko txapelketa ofizialaren finala eta pronostikoak hautsiz Errandoneak 22-20 irabazi zion Armendarizi.

1987, 1989, 1995 eta 1999. urteetan binaka txapelduna izana baldin bada ere, buruz burukoan ez zuen halakorik egin orain arte, buruz burukoan bi final eta lau terdikoan bertze bat galdu baitzituen. 40 urteen muga, beraz, eskuratu du lehen txapel hori. Hori bai, aunitz sufritu behar izan zuen garai-pena lortzeko. Armen-



ARGAZKIA: GARA

Carlos Armendariz azpitzapeldun eta Inaxio Errandonea txapeldun, Nafarroako lau terdiko txapelketa ofizialean.

dariz faboritua 6-1 aitzinetik paratu zen, baina Inaxiok ez zuen etsi eta poliki-poliki bere erritmoa ezarri zuen. Jokaldiaz eta bi paretaz tantu ederrak egin zituen.

Pozik zegoen Berako atzelaria lehen txapela eskuratu ondotik eta txapelketa hau EPELeke txapelen itzalean gelditu den arren, beretzat balio izugarria du ga-

raipen honek: «*Frontis-entzat ere hagitx garrantzitsua izan da, Nafarroako Federazioarekin halako txapelketa ospetsua ongi antolatu dugulako*» azaldu zuen.

Olaizola II eta Otxandorenak irabazi zuten San Fermin Lehiaketa

Aimar Olaizola goizuetarrak eta Oronoz-Mugairiko Iñaki Otxandorenak irabazi dute aurten udako esku pilotako lehen lehiaketa handia, Sanferminetako. Ustegabeko finala izan zen Labriten, Gonzalez eta Lasak finalerdia irabazi baitzieten Titin eta Goñi III.ari eta bertze horrenbertze egin zuten Aimar eta Iñakik, Asier Olaizola eta Belokiren kontrako bertze finalerdi ederrean. Finalean, Olaizola II eta Otxandorenak 22-14 irabazi zuten. Aipagarria izan da baztandarrak egin duen txapelketa ederra eta Aimar garai bateko sasoiara hurbiltzen ari dela kontuan hartuz, bikote bikaina osatu dute.

IGERIKETA

Ander Rodriguez igerilari beratarrak Espainiako txapelketan hartu du parte

Gipuzkoakoan bigarren izan zen maila absolutoan

Ander Rodriguez Korta igerilari beratarrak Espainiako ugeriketa txapelketan parte hartu du aste honetako Bartzelonan. Horretarako guttieneko denbora edo minima uztailaren 3 eta 4an Ordizian jokatu zen Gipuzkoako txapelketan lortu zuen, 50 metro librea 25 se-

gundu eta 66 zentesimako denborarekin. Txapelketa berean, bigarren izan zen kategoria absolutoan 100 metro librea (57"41) eta 200 metro librea (2'05"37). Oraindik 16 urte bertzerik ez dituela kontuan hartuz ez da gatazta batere gaizki.

Uztailaren 10 eta 11n

Euskadiko txapelketan aritu zen Anoetan. 400 metro librea absolutoan laugarren izan zen eta juniorretan bigarren, minimatik segundu batera geldituz. 200 librea hirugarren izan zen juniorretan eta minimatik 30 zentesimara gelditu zen. 50 metro tximeletan ere aritu zen.



HERRI KIROLA

Hainbat modalitatetako Nafarroako txapelak erabaki ziren Iruñeko Sanferminetan

Maika Ariztegi ittundarrak eta Xabier Sein igantziarrak bina txapel jantzi dituzte

A.A.

Urtero bezala, Iruñeko Sanferminetan erabaki dira herri kirolletako Nafarroako hainbat txapela. Horrekin batera, kasik egunero jaialdiak antolatu ditu Nafarroako Herri Kirol Federazioak.

Harrijasotzen, Iñaki Perurena leitzarra izan zen txapeldun bere 48 urteekin. Bi minutuko hiru txanda egin zituzten harri ezberdinekin eta guzira 6.250 kilo altxatu zituen. Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutia izan zen bigarren 4.550 kilorekin eta Mikel Lasarte hirugarren.

Donato Larretxeak eta Barberenak jantzi zuten Nafarroako Binakako aizkolarien txapela, Mindegia-Senosiaien eta Nazabal-Vicente gibelean utzita. Bikote bakoitzak sei kana erdiko eta sei 60 ontzako moztu zituen. Larretxea-Barberenak 28 minutu eta 7 segundutan akautu zuten lana, Mindegia-Senosiainek 26 segundu gehiago behar izan zuten eta Nazabal-Vicentek minutu eta 23 segundu gehiago.

Txingetan, Nafarroako txapelketak jokatu ziren nesketan eta mutiletan. Neskek 25 kiloko txingak erabili zituzten eta mutilek 50ekoak. Nesketan Maika Ariztegi ittundarra izan zen onena 9 plaza terdi eta 4,09 metroekin, E. Iriarte eta M. Iriarte-

ren aitzinetik. Mutiletan Andoni Irigoien aniztarrak nagusitu zen 16 plazarekin, Lazkoz eta Golarazarenaren aitzinetik.

LASTO ALTXATZE ETA INGUDE TXAPELKETETAN BERDINKETA ETA BI TXAPELAK XABIER SEINENTZAT

Lasto altxatzen Xabier Sein igantziarra izan zen onena, Iñaki Bereau herritarraren aitzinetik. Biek hogeita bana jasoaldi egin zituzten, baina azken jasoaldia egiten segundu bat guttiago behar izan zuen Seinek, eta horrek eman zion txapela janzteko aukera.

Ingudean ere, Xabi Sein izan zen txapeldun mutiletan, 89 jasoaldirekin. Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutiak altxaldi kopuru bera egin zuen, baina Sein aitzinetik aritu zen, eta araudia errespetatuz, bereztat izan zen txapela. Biek, gainera, Nafarroako errekor berria egin zuten. Orain arte 88 jasoalditan zegoen, Seinen eskuetan, eta biek 89 jasoaldi egin zituzten. Nesketan, Maika Ariztegi nagusitu zen.

Uztailaren 13an, Nafarroako aizkolari gazteen txapelketa jokatu zen eta Beñat Saralegi leitzarra nagusitu zen. Hiru enbor moztu behar zituen aizkolari bakoitzak eta leitzarrak 7 minutu eta 36 segundutan akautu zuen lana. Bi-

garren Garikoitz Larretxea arraiotzerra izan zen minutu batera eta Ruben Saralegi iruñearra hirugarren, minutu eta 55 segundura.

Arpanlari txapelketan Barberena anaiak gailendu zitzaizkien Kañamares anaiei.

Txapelketakoa saioa ez bazen ere, kanako enborra moztzen Nazabalek mendean hartu zuen Donato Larretxea. 11 minutu eta 2 segundu izan zen Etxarrikoaren denbora.

Bertze aldetik, Iturengo besten barrenean, Fernando Etxegarai beratarak txapel berri bat lortu zuen Nafarroako koxkor biltze txapelketan. Berriozarko Iñaki Ekisoain eta Josu Jimenez izan ziren bigarren eta hirugarren.



AGENDA egunez egun

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Abuztuaren 16, 17 eta 18an Belagoara ateraldia eginen dute Illurdi mendi taldekoek. Abuztuaren 19, 20 eta 21ean Hechora ateraldia eginen dute Illurdi mendi taldekoek.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Uztailaren 16tik abuztuaren 16ra Juan Carlos Olaetxearen margolanak ikusgai Jaime Urrutia karrikaren 38.ean. 11:00etatik 14:00etara era 18:00etatik 21:00etara.
Uztailaren 24tik abuztuaren 31ra Tomas Sobrino margolariaren «Begiradak» erakusketa zabalik Arizkunenean. Egunero 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara.
Uztailaren 23tik irailera Ana Marin margolariaren erakusketa Bergarenean. Goizez 11:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 18:00etatik 21:00etara.

ETXALAR


Uztailaren 9tik abuztuaren 1era Lola Garro margolariaren lanak ikusgai Kultur Etxean. Astegunez 10:00etatik 13:30etara, larunbat arratsaldetan 18:30etatik 20:30etara eta igande goizetan 12:00etatik 14:00etara.

KULTUR EGUNA

URDAZUBI

Abuztuaren 7an Kultur Eguna. 11:00etan pilota partidua. 13:00etan Jean Haritschelhar-en solasaldia: «Goardak eta kontrabandoa». 14:00etan zikiro-jatea, Joxe Angel akordeolariak alaitua.

TELEBISTAKO TXOKOA



JOSEBAK ETA MAITEK AURKEZTURIK San Estebanetan murgilduko da Bestaz Besta saioa

Doneztebeko San Pedroek ireki zuten aurtengo udako besta-eromena eta orduantxe abiatu zen TTIPI-TTAPA TELEBISTAN *Bestaz Besta 2004* telesaioa. Lesakako Sanferminekin izan zuen segida eta azken egun hauetan Iturenen ere egon dira TTIPI-TTAPAKO kamarak. Heldu den astelehenean, abuztuak 2, Berako San Estebanek hasiko dira eta aste osoa bertan emanen dute telebistako lankideek, egunero-egunero programa bereziak Beran grabatzeko.

Joseba Olgarai eta Maite Bidarte izanen dira besta hauetan ere saioaren gidariak. Harat-honetan ibiliko dira bi kazetariak, elkarri-

ketarik bixienak eta erreportajerik frexkoenak prestatuz. Txupinazioa, Sanesteban eguna, herri bazkaria, kukaña, haur jokuak, migatuuak... ekitaldi guzietan ibiliko dira, etxeko xokotik telebista ikusten daudenek ere Berako besta-giroaz gozatu dezaten. Berako bestak akautu bezain agudo, UDA GIROAN magazina izanen duzue berri ikusgai, Ainara Mindegia aurtiztarrak gidaturik. Erreportaiak, musika saioak, bidaia programak eta bertze hainbat gauza izanen dituzue ikusgai magazin frexko eta bixi honetan. Uda honetan ere, TTIPI-TTAPA TELEBISTA duzu zure aukera.

DISKAK



«Ganbaran bai (Urolako trikitixa)»

IMUNTZO eta BELOKI

ELKAR, 2004

Ganbaran bai (Urolako trikitixa) izenpean Imuntzo eta Beloki trikitixa bikoteak aurkezten duen honako diskoa beraien karrerako bosgarrena dugu eta bertan topatzen ditugun 23 pieza horietan, bailarako aspaldiko errepertorioak berrinterpretatuz eta gaurkotuz, izaera herrikoiaz markaturik dator ezinbertzean; erritmo, xehetasun eta kolore esparru zabal bat jorraturik, fandango, arin-arin, kalejira, pasodoble, tango, vals, fox trot eta abarren bitartez, dantza soltean zein arrimatu, betiko dantza herrikoia isla gardena dugu, lan jardun gogorraren ondotik nekeak gainetik kentzeko balio duen ukendua. Besta baita, azken finean, gorputz xehatu eta arima erratuentzat botikarik eraginkorra. Lan honen oinarrian, 1960ko hamarkadan Loiolako Herri Irratiaren artxiborako bildutako grabaketak daude.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Uztailaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 17,00 € (-1,00)

Zerri gizena
1,243 € kilo. (=)

Zerramak:
0,550 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,06 (=)

1.koa 2,89 (=)
2.koa 2,76 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,16 (=)
1.koa 3,02 (=)
2.koa 2,83 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 228,00 (-23,50)
idixkoak 250,00 (-23,50)

Aretze nabarrak:
urruxak 192,00 (=)
idixkoak 220,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/2,96
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kiloak: 6,60/ 6,90
8-10 kiloak: 5,30 / 5,80

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Erregaia aurrezteko aholkuak



- **Ibilbide labur-laburretan autoa ez hartu.** Egiten diren ibilbideen %45 hiru kilometro baino motzagoak dira; horietan 20 litroraino kontsumi dezake ibilgailuak 100 kilometroko, errepidean egiten duenaren bikoitza.
- **Birak minutuko.** Gasolinako autoetan minutuko 2.000-2.500 biratan ibiltzea eta dieseletan 1.500-2.500tan ibiltzea da egokia. Modelo berriko autoak eroso dabilta erregimen horietan, mekanikak sufritu gabe.
- **Bat-bateko azeleratze eta balaztadak.** Horrela ez da ibili behar, ahal dela, erregai gehiago kontsumitzen baita. Abiadura handian dabilenean gidariak balizko aldaketak aurreikusi behar ditu: adibidez, semaforoa gorri jarriko dela somatzen badu azeleragailutik oina altxatzea, ibilgailuari bere inertziaz iristen utziz eta balazta eta enbragearekin jolas-tuz, pixkanaka geldiarazteko.
- **Segurtasuneko distantzia.** Aitzineko autotik behar bezalako segurtasun distantzia badugu, abiadura erregularrean

- ibilbi ahal izango gara, gehiegizko energiari kontsumitu gabe; horri esker ez dugu egin beharko bat-bateko azeleratze eta balaztadak, erregaia-ren %10-15 aurreztuz.
- **Maldan beheiti** goazela azeleragailutik oina altxa eta ibilgailuaren inertziaz baliatzea komeni izaten da, martxa-palanka eta balazta erabiliz. Ez utzi martxa palanka puntu hilean: arriskutsua izateaz gainera, ibilgailuak gehiago kontsumituko du. Behetik gora nahi dugunean, aitzitik, ahalik eta martxa luzeenean jarri behar dugu autoa, azeleragailua abiadura mantentzeko behar dena baino gehiago zanpatu gabe.
- **Zirkulazio handia.** Karabanan egokitzeotan, autoak guttiago kontsumituko du gelditzen ez bada (geldialdi luzeetan izan ezik).
- **Ibilgailua abiatzea.** Kontaktu giltza biratuz bakarrik abiatzen da motorra, ez da zertan azeleragailua zanpatu. Gaso-

- linazko motorretan kontaktua biratzeko unean abiatu behar da motorra. Dieseletan, berriz, zuhurtziazko bost segundo esperatzeak kontsumo apalagoa ekarriko du.
 - **Martxak.** Ibilgailua abiatu bezain laster hobereana da lehenetik bigarren martxara lehenbailehen aldatzea: martxa zenbat eta luzeago, orduan eta arinagoa izanen da gastua. Martxaz aldatzeko ez da zertan azeleragailua behe-raino zanpatu behar, larrialdietan izan ezik, erregai kontsumoa izugarri igotzen baita horrela.
 - **Gurpilak.** Neumatikoetan aire gehiegi sartzen badugu litekeena da automobilak bihurtuneetan egonkortasun tikiagoa izatea. Presio apalegia duten neumatikoek dezente erregai gehiago gastarazten dute. Gurpilak tarteka aztertzea eta fabrikatzaileak adierazitako neurriak hartzea aholkatzen dute mekanikoek.
- Consumer Aldizkaritik bildua

LIBURUAK



Bazaudete?

Hasier LARRETXE
J.A. PEROTXENA

METAZIRI, 2004

Hasier Larretxea olerkigile arraiotarrak eta Juan Angel Perotxena ilustratzaile elizondarrak "Bazaudete" liburuxka aurkeztu dute. Liburuxka Metaziri eta Elizondoko Gazteak-en ekoizpen autogestionatua da. Hasier Larretxea behin baino gehiagotan saritu dute bere literatur lanarengatik. 2002 eta 2004 urteetan Nafarroako Unibertsitate Publikoko literatur sariketan lehendabiziko saria lortu du euskarazko poesia atalean eta Iruña Hiria li-

teratur lehiaketan ere lehendabiziko saria eskuratu zuen 2001ean euskarazko poesia atalean. Olerki laburrak bildu dira liburu honetan, maitasuna eta gizarteari buruzkoak: *Zuk erran bezala zaintzen ditut lorategiko loreak. Nahiz eta zuk errandako guztia egin, ximeltzen ari zaizkit. Nik bezala, loreek ere zure hutsunea nabari dutelako.*

BESTAK

BERA

Abuztuaren 2tik 6ra San Estebanak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

LEITZA

Abuztuaren 10etik 15era San Tiburtzioak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

BEINTZA-LABAIEN

Uztailaren 30etik abuztuaren 3ra bestak. Xehetasunak 20. orrian.

GAZTELU

Abuztuaren 1etik 5era Santo Domingo bestak. Xehetasunak 17. orrian.

ZIGA

Abuztuaren 7tik 11ra San Lorenzo bestak. Xehetasunak 33. orrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Uzt 26tik abuztuaren 1era

Lesaka (M.J. Txoperena), Doneztebe (J.A. Mendi), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (M.I. Larraia).

Abuztuaren 2tik 8ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (M.T. Plaza).

Abuztuaren 9tik 15era

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

Abuztuaren 16tik 22ra

Lesaka (M. Marin), Ituren, Irurita, Leitza (A. Gimeno).

Abuztuaren 23tik 29ra

Bera (A. Fernandez), Etxalar, Doneztebe (S. Larraioz), Arizkun, Oronoz-Mugari, Leitza (M.I. Larraia).

Ab. 30etik irailaren 5era

Bera (M. J. Sanz), NARBARTe, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (M. T Plaza).

00-34 **948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
